

# EAEkoekonomiaren hiruhilabetekaria

2019ko 2. hiruhilekoa

**EUSKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**

OGASUN ETA EKONOMIA  
SAILA  
*Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza*

DEPARTAMENTO DE HACIENDA  
Y ECONOMÍA  
*Dirección de Economía y Planificación*



## LABURPENA

EAEko ekonomia %2,2 hazi zen 2019ko bigarren hiruhilekoan, aurreko hiruhilekoaren tasa berdinduz. Horri esker, azken hiruhilekoetan bizi den moteltzeko prozesua geldotu da, oraingoz bederen. Bide horretan, 2018ko bigarren hiruhilekoan %3,2 haztetik 2019ko hastapenean %2,2 gehitzera pasatu da. Kontu ekonomikoen informazioak bildu duen egonkortasuna aurreikusita zegoen pasa den hiruhilekoaren buletinean azaldu zen taula makroekonomikoan. Inguruko herrialdeekin alderatuta, EAEko ekonomiaren gehikuntza tasa Eurogunearena (%1,2), Europar Batasunarena (%1,4) eta Alemaniaren (%0,4), Frantziaren (%1,4) eta Erresuma Batuaren (%1,2) hazkunde baina nabarmen handiagoa da. Halaber, Espainiaren antzekoa da (%2,0).

Epealdi horretako ezaugarri esanguratsuenetako bat kanpo saldoak ezagutu duen zeinu aldaketa da, BPGaren gehikuntzari hainbat hamarren kentzetik ekarpen positibo txikia egitera igaro baita orain. Emaizta horren atzean, esportazioen (%2,8) bilakaera ona dago, inportazioak (%2,6) erritmo apalean hazi ziren bitartean. Datua bereziki esanguratsua da berez oso zaila den testuinguru batean lortu delako, hainbat faktorek nazioarteko harremanak kaltetu dituztelako. Alderdi horien artean, AEBen eta Txinaren arteko merkataritza gerra, produktu europarrei muga zergak igotzeko mehatxuak eta Brexitari buruzko akordio falta aipatu behar dira, beste batzuen artean.

Barne eskariak (%2,0) moteltze biziko joera erakutsi zuen, dagoeneko aurreko hiruhilekoetan erakutsi zuen apaltzea bizkortuz. Barneko bultzada txikiago horren jatorria beraren bi osagai nagusietan aurkitzen da, baina batez ere kapital eraketa gordinaren bultzada neurritsuan, hainbat hiruhilekoz jarraian %4,0tik gorako tasak jaso ondoren, %2,5 baino ez baitzen hazi. Hala ekipamendurako ondasunetan eginiko inbertsioak (%2,2) nola gainontzeko inbertsioak (%2,6) aurrekoak baino aldakuntza tasa nabarmen txikiagoak eskuratu zituzten. Inbertsioko egitasmo berriei ekiteko orduan enpresek dituzten zalantzak azaltzen dituzten arrazoiertako bat nazioarteko testuinguruan piztu den ziurgabetasuna da.

Azken kontsumoari dagokionez, kontsumo pribatua egiten ari den doikuntza nabarmendu behar da, azken urtebetean ia puntu oso bat galdu duelako, 2018ko bigarren hiruhilekoko %2,8 hartatik urtebete bat beranduago jaso duen %1,9ra. Familien gastuak izan duen gehikuntza txikiago hori azaltzen duten arrazoiaren artean, enpleguaren bilakaera dago, oraindik positiboa den arren gero eta motelagoa delako. Orobat, krisi garaian atzeratu zen eta aurreko hilekoetan kontsumo pribatua bultzatzen egon zen produktu iraunkorren erosketa honezkero guztiz asetua da gaur egun. Une hauetan, kontsumo pribatuaren gehikuntza (%1,9) eta enpleguarena (%1,7) oso hurbil daude, nahiz eta soldata errealean igoerak aukera eskaintzen duen makromagnitute horri bultzada gehigarri bat emateko.

Sektoreen analisiak zerbitzuen sendotasuna baieztatzen du, beren balio erantsiaren hazkundeak %2,6an jarraitzen duelako, aurreko emaitzaren aldean (%2,6) eta 2018ko batez bestekoaren aldean (%2,7) aldaketa gutxi erakutsiz. Zerbitzuen hiru talde nagusiek %2,0aren gaineko urte arteko tasak lortu zituzten, bilakaera kontrajarriak erakutsi zituzten arren. Izan ere, merkataritza, ostalaritza eta garraioa biltzen dituen taldeak bizitasuna galdu du, baina gainontzeko zerbitzuak delakoa indartsuago dago orain. Beste aldetik, industriak berriro hobetu zuen emaitza, baina ez ditu bere jardueraz sortu diren zalantzak uxatu, %0,8 baino ez baita hazi. Sektorearen ahultasuna, nazioarteko lehiari irekien dagoena baita, Europako herrialde nagusietan ere hauteman da, automobilgintzaren krisiak eta nazioarteko merkataritzaren ziurgabetasunak kaltetuta. Azkenik, eraikuntzak nabarmen apaldu zuen erritmoa %2,9an geratu arte.

Lan merkatuak bilakaera onari eutsi zion bigarren hiruhilekoan, enplegua %1,7 areagotu baitzen, hots, aurreko datua baino hamarren bakar bat gutxiago. Hala eta guztiz ere, 2019ko lehen erdian jaso diren emaitzak azken lau urtekoan behin eta berriro eskuratu den %2,0aren azpian daude. Urte arteko gehikuntza lanaldi osoko 16.000 lanpostu baliokide baino gehiago izan da. Ohikoa denez, lanpostu gehienak zerbitzuetan bildu dira (%1,8), baina bai industriak (%0,9) bai eraikuntzak (%3,3) paper garrantzitsua izan dute hobekuntza horretan, beren balio erantsien gehikuntza tasak gaindituz.

EAEko ekonomia, Europako herrialdeen multzoa bezala, urrun dago oraindik Europako Banku Zentralak prezioen igoerarentzat ezarri zuen %2,0ko helburua lortzeko. Hain zuzen ere, bigarren hiruhilekoan, BPGaren deflatoea berriro kokatu zen %1,1ean, hirugarren hiruhilekoz jarraian. Zenbaki hori bat dator kontsumo pribatuaren deflatoreak eta KPI indizeak izan zuten batez besteko gehikuntzarekin. Halaber, azken adierazle horrek balio txikiago batera seinalatzen du ezagunak diren hirugarren hiruhilekoaren hilekoetan. KPIaren bilakaera energiaren salneurriaren aldaketek baldintzatzen dute oraindik, azpiko inflazioak %1,0aren inguruko perfil laua erakusten duen bitartean. Energiaren merkatzeak tasa negatiboetara eramane du hondar inflazioa.


Eustaten kontu ekonomikoek izan duten berrikusketak eta inguruneari buruzko hipotesien gaurkotzeak aurrekotik zertxobait aldendu den aurreikuspen taula bat ekarri dute. Izan ere, oraingo taulan %2,2ko gehikuntza tasa aurreratzen da EAEko BPGarentzat 2019an, hots, aurreko eszenategian baino hamarren bat gutxiago. Datorren urterako, bere horretan utzi da %2,0ko aurreikuspena. Bi urteetan, barne eskaria izango da EAEko ekonomiaren motorra, kanpo saldoaren ekarpena negatiboa baina txikia izango den bitartean. Hala kontsumo pribatuak nola inbertsioak bizitasun pixka bat galduko dute hiruhilekoak aurrera joango diren heinean. Beste aldetik, industriak gaur eguneko zailtasunak gaindituz joango da, baina aurreko urteetako erritmo bizia berreskuratu gabe. Eraikuntzak dinamismo handia erakutsiko du eta zerbitzuek hazkundera apalduko dute, baina batez bestekoaren gainetik haziko dira.

## EKONOMIAREN INGURUNEA


Merkataritza gerra, gatazka politikoak eta finantza merkatuetako zurrunbiloek, beste arrazoi batzuen artean, ezegonkortasuna sortu zuten, baina munduko ekonomiaren narriadura mugatua izan da. Munduko ekonomia nagusien hazkunde erritmoak apaldu ziren, baina oraingoz ez da bat-bateko balaztada orokorra aurreikusten. Udako hilekoetan, ziurgabetasuneko gune nagusiek bere horretan jarraitu zuten. Beraz, ekonomia jardueraren erritmoak urtea aurrera joango den heinean apaltzen jarraituko duela espero da.

### Munduko ekonomia. BPGa Urte arteko hazkunde tasak


ELGE




Europar Batasuna



AEB



Txina



Iturria: Eurostat eta ELGE.

Asian, Txinak AEBekin duen merkataritza gerrak maiatzean pairatu zuen bere une mingotsena, negoziatioak bertan behera geratu ondoren bi herrialdeek mehatxuak gogortu zituztenean. Gatazka horrek ekonomia txinatarrean, bereziki kontsumoaren eta inbertsioaren bilakaeran, izan zezakeen eragina leuntzeko eta yuanaren balizko devaluazio bat saihesteko, Pekinek moneta politika lasaitu zuen, pizgarri fiskalak areagotu zituen eta azpiegiturretan mila milioi asko inbertitu zituen. Aurreko guztiaren ondorioz, erraldoi asiarra oraindik sendo hazi zen eta bere BPGaren gehikuntza tasa %6,2an kokatu zuen, aurtengo lehen sei hilekoan %6,3ra iristen dela. Hala ere, Txinako BPGaren moteltzea gero eta argiagoa da, zeren eta hamarkadaren hasieran hazkunde tasa %10,0tik gorakoa baitzen eta oraingoa %6,2, hots, 1992ko lehen hiruhilekotik inoiz izan duen erritmorik apalena. Indiak ere bere hazkundera moteldu zuen. Hain zuzen ere, herrialde hartako BPGa %5,1 handitu zen, aurreko emaitza baino gutxiago. Bizitasun motelago hori BPGaren agregatu guztietara iritsi zen, aurrekoak baino tasa txikiagoak izan zituztelako.

Azaleratzen ari diren gainontzeko herrialdeetan, dinamika oso bestelakoa izan zen. Brasil eta Mexiko aurreikusita baino gehiago hazi ziren, baina Errusiak ez zituen igurikimenak bete. Hain zuzen ere, Brasil, doikuntza fiskaleko eta pribatizazioetako egitasmoarekin, %1,0 hazi zen, lehen hiruhilekoan baino puntu erdi bat gehiago, inbertsioaren eta kontsumo pribatuaren bultzadari esker. Ekonomia mexikarrari dagokionez, aurtengo lehen hiru hilekoetan izan zuen hazkunde hutsalaren ondoren, ekonomia jarduera %0,3 hazi zen. Kontsumo pribatuaren suspertze partzialak eta esportazioen bultzadak emaitza hori azaltzen dute. Azkenik, Errusia %0,8 hazi zen, lehen hiruhilekoan baino bi hamarren gutxiago eta sei hileko lehenago eskuratu zuen emaitza baino 2,2 puntu gutxiago. Barne eskariaren ahultasuna inflazioaren moteltzeak eta inportazioen murrizketak baieztatu zuten, balioa irabazi duen errublo batekin.

Herrialde garatuak, oro har, %1,6 hazi ziren, aurreko sei hilekoetan jaso zen %1,7 horretara gutxigatik iritsi gabe. Beste hiruhileko batez, AEBen bilakaera nabarmendu zen, indar apur bat galdu bazuen ere, erritmo bizian hazten jarraitu zutelako. Kontsumo pribatuak eutsi zion eta %2,6ko tasa jaso zuen, aurtengo lehen hiru hilekoetan eskuratu zen %2,5aren gainetik. Inbertsioa %3,9 areagotu zen. Tasa hori garrantzitsua da, baina urrun dago aurreko hilekoetan lortu ziren %5,0aren gainetik hazkundera. Bilakaera hori munduko ekonomiaren ahultzearen eta muga zergen gerraren ondorioa da. Esportazioak, berriz, %1,7 gutxitu ziren eta inportazioak lehen beste hasi ziren (%2,6), Donald Trump presidenteak politika protekzionista indarrean jarri duen arren. BPGaren erritmo motelagoari enpleguaren sorrera apalagoa gehitu behar zaio. Izan ere, igaro den 2019ko zatian, AEBek 165.000 lanpostu sortu dituzte hileko bakoitzean, batez beste, baina iazko batez bestekoa 223.000 lanpostukoa izan zen. Hala eta guztiz ere, herrialde horretako langabezia tasa oso txikia da oraindik eta uztailean %3,7an kokatu zen.

Japoniak aurtengo lehen hiru hilekoetan bizi zuen ezusteko gorakadak ez zuen jarraipenik izan bigarren hiruhilekoan. Kontsumo pribatuaren hazkundera areagotu zen, neurri batean maiatzaren

hasieran ospatu zen Urrezko Asteko oporren iraupen luzeagoaren eraginari esker, baina baita erosketen aurreratzeari esker, urrian BEZa igoko delako. Hala eta guztiz ere, inbertsioa berriro apaldu zen, sustapen publikoa kendutakoan. Halaber, kanpo saldoak hamarren batzuk kendu zizkion jarduerari. Kontsumoaren dinamismo handiagoak inportazioak gorarazi zituen, baina esportazioek jaitziera areagotu zuten, munduko merkataritzaren beherakadaren ondorioz, batez ere Txinako eskaria murriztu zelako. Prezioei dagokienez, eremu positiboan kokatu baziren ere (abuztuan %0,2ra iritsi zen igoera), ez dira gai izan goranzko joera bat finkatzeko. Azkenik, lan merkatuan, langabezia tasa %2,2ra murriztu zen ekainean.

Europar Batasunak indarra galdu bazuen ere, nahiko egonkor atxiki zion ekonomia jarduerari. Kontsumoa, hala publikoa nola pribatua, aurreko hiruhilekoan izan zuen erritmo berean areagotu zen, inbertsioa zertxobait moteldu zen bitartean. Dena dela, inbertsioaren hazkundera %2,5era iritsi zen eta puntu erdi bat ekarri zion ekonomia jarduerari. Barne eskariaren norabidearekin bat ez datorren datua izakinen aldakuntzaren eskutik heldu zen, BPGaren gehikuntzari puntu erdi bat kendu ziolako. Kenketa hori, neurri batean, kanpo arloak konpentsatu zuen, lehen aldiz bederatzi hilekotan bi hamarren ekarri zizkiolako BPGari. Esportazioen portaera onak eta inportazioen narriadura txikiagoak azaltzen dute joera aldaketa hori. Aurreko guztiaren ondorioz, Europar Batasuna %1,6 hazi zen, aurreko hiruhilekoan baino bi hamarren gutxiago.

Europar Batasunaren hazkunderaren atzean, bilakaera kontrajarriak hauteman dira. Izan ere, Alemania %0,4 hazi zen, hots, lehen hiruhilekoan baino puntu erdi bat gutxiago eta azken sei urteko emaitzarik txikiena. Kasu horretan, kanpo arloak galgatu zuen ekonomia hazkunderaren bilakaera, zeren eta kontsumo pribatuak eta publikoak lehen hiruhilekoan jasotako tasen aldean egonkortasuna erakutsi zutelako. AEBen eta Txinaren arteko merkataritza gerrak kanpo sektorearen eta manufaktura industriaren errendimendua kaltetu zuen. Horri gehitu behar zaizkio automobilgintzak aurrean dituen erronkak, ekonomiaren motor nagusietako bat baita. Arrazoi horiengatik esportazioek moteltze garrantzitsua pairatu zuten eta oso gutxi (%0,1) hazi ziren. Bilakaera horretatik urrun, Frantziako BPGa aurreko epealdian baino gehiago hazi zen. Barne eskariaren agregatu guztiek gehikuntza tasa areagotu zuten eta esportazioak inportazioak baino gehiago hazi ziren, kanpo arloak BPGari hamarren bat ekartzea ahalbidetuz. Aurreko guztiaren ondorioz, ekonomia jarduera %1,4 handitu zen.

Brexitaren hurbiltasunak lehen kalteak egin zizkion Erresuma Batuari. Herrialdean bizi den ziurgabetasunak inbertsioan eta esportazioetan izan zuen eragina bereziki, nazioarteko merkataritzaren ahultasunaren ondorioz gutxitu zirelako. Beste aldetik, inportazioak oso nabarmen jaitsi ziren (%-0,8) bigarren hiruhilekoan, aurreko hiruhilekora aurreratu ziren erosketek hileko horietako tasa oso gora (%14,3) eraman ondoren. Aurreko guztiak azaltzen du zergatik herrialde horretako BPGa %1,2an kokatu zen, aurreko emaitza baino sei hamarren beherago.



Hala eta guztiz ere, datu txarrena Italiaren eskutik iritsi zen, bigarren hiruhilekoz jarraian behera egin zuelako, atzeraldi teknikoan sartuz. Arazo politikoek eta Europako Batzordearekin gai fiskaletan izan dituen tentsioek eragina izan zuten kontsumo pribatuan eta, neurri txikiagoan, inbertsioan, puntu oso bat gutxiago hazi baitzen. Aurrekoaz gain, ezegonkortasun horrek eragin negatiboa izan zuen konfiantzan eta kontsumo pribatuan, %0,3ko hazkunde motela jaso baitzuen. Tasa txiki hori ez zen nahikoa izan gainontzeko agregatuen narriadura konpentsatzeko. Aurreko guztiaren ondorioz, ekonomia italiarra %0,1 gutxitu zen.

Ekonomia espainiarra %2,0 hazi zen, hots, aurreko hiruhilekoan baino bi hamarren gutxiago. Beraz, duela urtebete bat hasi zuen moteltzeari jarraipena eman dio berriro. Aurreko hiruhilekoetan ez bezala, bigarrenengan barne eta kanpo eskariek neurri berean ekarri zioten ekonomia jardueraren hazkundeari. Hain zuzen ere, inbertsioaren apaltze bizia esportazioen bultzada sendoak konpentsatu zuen, inportazioak jaitsi ziren bitartean. Arrazoi horiengatik, kanpo saldoak puntu oso bat ekarri zion BPGaren gehikuntzari, barne eskariaren ekarpena berdinduz. Lan merkatuari dagokionez, enplegua %2,5 areagotu zen eta langabezia tasa %13,9ra gutxitu zen uztailean.

## ESPAINIAKO EKONOMIA. TAULA MAKROEKONOMIKOA

Urte arteko aldakuntza tasa

	2017	2018	2018				2019	
			I	II	III	IV	I	II
Azken kontsumoko gastua	2,5	1,9	2,3	2,0	1,7	1,4	1,3	1,0
- Familien gastua	3,0	1,8	2,5	2,1	1,6	1,2	1,1	0,6
- Administrazioaren gastua	1,0	1,9	1,6	1,7	1,9	2,2	2,2	2,2
Kapital finkoaren eraketa gordina	5,9	5,3	4,5	7,9	5,3	3,5	4,8	1,0
Nazio eskaria (*)	3,0	2,6	2,8	3,1	2,5	2,0	1,9	1,0
Esportazioak	5,6	2,2	4,0	3,1	1,6	0,1	0,3	2,2
Inportazioak	6,6	3,3	4,7	6,3	2,5	-0,3	-0,4	0,7
<b>BPG (m.p.)</b>	<b>2,9</b>	<b>2,4</b>	<b>2,8</b>	<b>2,3</b>	<b>2,2</b>	<b>2,1</b>	<b>2,2</b>	<b>2,0</b>
Nekazaritza eta arrantza	-3,0	5,9	5,9	7,8	3,0	6,9	0,0	-4,6
Industria	3,1	-0,4	0,4	-0,3	-0,2	-1,5	-0,7	0,2
Eraikuntza	4,9	5,7	5,0	5,5	6,2	5,9	6,4	5,2
Zerbitzuak	2,9	2,7	3,0	2,5	2,6	2,7	2,9	2,8
Produktuen gaineko zerga garbiak	2,8	1,2	2,4	1,5	0,8	0,0	-0,5	-0,4

Oinarri urtea: 2015. (\*) BPGaren hazkundeari eginiko ekarpena.

Iturria: Espainiako Estatistika Erakundea (INE).



## EAE-KO EKONOMIA

### Ekoizpena eta enplegua

EAEko ekonomia %2,2 hazi zen 2019ko bigarren hiruhilekoan, aurreko balioa berdinduz eta duela urtebete bat hasi zuen moteltze leuna, aldi baterako, galgatuz. Bilakaera erritmoan hautematen den egonkortasuna bat dator Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak aurreko txostenean aurkeztu zuen taula makroekonomikoak erakutsi zuen perfilarekin. Europako herrialde nagusiekin alderatuta, baieztatuta geratzen da EAEko barne produktu gordina haietako gehienak baino gehiago hazten ari dela. Esate baterako, Eurogunea %1,2 hazi zen epealdi horretan eta Europar Batasuna, berriz, %1,4. Orobat, Alemania (%0,4), Frantzia (%1,4), Italia (%-0,1) eta Erresuma Batua (%1,2) EAEko tasaren azpian kokatu ziren nabarmen. Espainia, berriz, %2,0 hazi zen.

#### ESKAINTZAREN ALDAGAIK

Urte arteko aldakuntza tasak

	2017	2018	2018			2019	
			II	III	IV	I	II
<b>BPG erreala</b>	<b>2,8</b>	<b>3,0</b>	<b>3,2</b>	<b>3,0</b>	<b>2,6</b>	<b>2,2</b>	<b>2,2</b>
Nekazaritza eta arrantza	10,1	7,9	8,1	4,8	15,9	4,6	-0,1
Industria eta energia	2,5	2,5	3,5	2,5	0,3	0,6	0,8
- Manufakturen industria	2,5	2,8	3,8	2,9	0,5	0,6	0,7
Eraikuntza	1,6	4,1	3,7	5,4	6,2	4,8	2,9
Zerbitzuak	2,9	2,7	2,6	2,5	2,7	2,6	2,6
- Merkataritza, ostalaritza eta garraioa	4,1	4,0	4,1	3,9	3,6	2,8	2,5
- AA. PP., hezkuntza eta osasuna	2,2	2,1	1,9	2,0	2,1	2,1	2,3
- Gainontzeko zerbitzuak	2,6	2,2	2,0	2,0	2,4	2,7	2,9
Balio erantsi gordina	2,8	2,8	3,0	2,7	2,4	2,2	2,2
Ekoizkinen gaineko zerga garbiak	2,3	4,9	5,8	5,1	3,8	2,2	1,9

Iturria: Eustat.

Bigarren hiruhilekoan, zerbitzuek aurreko epealdietan erakutsi zuten joera hedakorrari eutsi zioten eta %2,6ko urte arteko tasa jaso zuten, aurreko hiruhilekoaren emaitza berdinduz eta 2018ko batez bestekoan eskuratu zuena baino hamarren bakar bat gutxiago. Sektorearen agregatua osatzen duten hiru taldeak %2,0 baino gehiago hazi ziren, baina bilakaera kontrajarriak hauteman dira bakoitzean. Izan ere, merkataritza, ostalaritza eta garraioa biltzen dituen taldea

moteltzeko joera garbi batean dago murgilduta, bai 2017an bai 2018an ezagutu zituen %4,0ko erritmoetatik guztiz aldentuta, une hauetan %2,5 apalago batean kokatu arte. Kontsumo pribatuak izan duen apaltzea dago bilakaera horren atzean. Aitzitik, gainontzeko zerbitzuak delakoak hobekuntza islatu zuen, beraren tasa %2,9ra igota. Azkenik, administrazioaren jardunari lotuago dauden jardueren balio erantsia %2,3 areagotu zen, aurreko epealdiekin alderatuta aldaketa gutxi erakutsiz.

## JARDUERA ADIERAZLEAK

Urte arteko aldakuntza tasak

	2017	2018	2018			2019	
			II	III	IV	I	II
<b>Industria</b>							
Industria produkzioaren indizea	5,7	2,0	3,4	1,9	-2,4	0,0	1,4
Negozio zifren indizea	9,4	5,8	11,3	7,4	-1,0	2,5	-3,7
Eskarien sarrera	6,5	4,3	5,6	1,7	4,6	4,4	2,6
Gizarte Segurantzako afiliazioa	1,8	1,8	1,9	1,9	1,3	1,1	0,8
<b>Eraikuntza</b>							
Eraikuntzaren koiuntura indizea	5,9	18,5	17,6	19,8	21,9	6,1	4,1
Etxebizitza berriak eraikitzeko	26,7	20,3	88,5	16,7	3,6	30,0	-1,6
Etxebizitzen salerosketak	11,4	13,8	10,0	16,4	15,5	3,7	-3,0
Gizarte Segurantzako afiliazioa	1,8	3,6	3,4	4,0	4,3	4,0	3,7
<b>Zerbitzuak</b>							
Hegazkinen bidezko bidaiariak	9,2	10,5	9,6	10,3	10,8	7,4	10,6
Hoteletan igarotako gaualdiak	2,6	7,2	5,7	5,9	9,4	3,7	6,6
Negozio zifren indizea	4,4	7,4	7,8	9,1	5,5	5,0	3,9
Zerbitzuen koiuntura indizea	3,2	1,1	0,9	0,0	1,7	1,6	1,2
Gizarte Segurantzako afiliazioa	2,2	2,1	2,1	1,7	2,0	1,8	2,1

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Eustat, INE, Sustapen Ministerio, Gizarte Segurantzak eta AENAREN datuetan oinarrituta.

Zerbitzuetako balio erantsiaren gehikuntzak erakusten duen egonkortasuna Eustatek argitaratzen duen koiuntura inkestan hautematen da. Eragiketa horrek %1,2ko igoera adierazten du epealdirako, 2018an jaso zen %1,1 harekin bat eginez. Sektorearen barruan, portaera ezberdinak daude. Izan ere, ibilgailuen salmentak beherakada bizia pairatu zuen hiruhilekoan (%-4,9), jarduera administratiboek eta zerbitzu laguntzaileek (%-4,0) zein informazioa eta telekomunikazioek (%-3,8) bezala. Aitzitik, bilakaera nabarmen hobea izan zen garraioan eta biltegiaritzean (%3,4) eta handizkako merkataritzan (%2,1). Beste aldetik, turismoarekin

zerikusia duten estatistikek bizitasun handia erakutsi zuten, datu oso altuekin hala hoteletako gaualdietan nola aireportuetako bidaiarien trafikoa.

Industriaren susperraldia aurreikusi zena baino astiroago gauzatzen ari da. Bigarren hiruhilekoan, balio erantsiaren gehikuntza %0,8ra iritsi zen, aurreko datua baino bi hamarren gehiago, eta bi hiruhileko kateatu ditu hazkundera bizkortzen, baina urrun dago azken bi urteetako erritmotik (%2,5). Nazioarteko kontuetan dagoen akordiorik ezak, hala nola AEBen eta Txinaren arteko merkataritza gerrak eta Brexitak, ziurgabetasuneko giroa eragin du, bereziki industriari kalte egiten diona. Halaber, mugikortasunaren esparruan bizi den garraio mota jasangarriagoetara aldatzeko trantsizioak kalte egiten dio ibilgailu termikoen fabrikazioari, Europan pisu handia baitauka, baina baita norbanakoei eta enpresei ere, ibilgailu bat erosteko unea geroratzen baitute teknologia berriak norantz doazen argitu arte.

Oro har, industriaren ekoizpenak aurreko bi epealdietako emaitzak hobetu zituen, baina beraren osagaiak bilakaera ezberdinak izan zituzten. Izan ere, ahultasuna begi bistakoa da ekipamendurako ondasunen ekoizpenean (%-0,1), azken urteetako gorakaden ondoren. Aitzitik, kontsumorako ondasunak %5,2 areagotu ziren eta hamabi hiruhileko eman dituzte hazkunde tasa positiboak biltzen. Kontsumo iraunkorreko ondasunek (%12,0) bultzada sendoa ezagutu zuten hiruhilekoan, baina gorabehera handiak izaten dituzte. Kontsumo iragankorrekoek (%3,8), berriz, bilakaera egonkorragoa erakutsi dute. Energiaren ekoizpena %2,7 hazi zen hiruhilekoan, nahiz eta Petronor enpresak beste geldialdi bat egin zuen. Azkenik, bitarteko ondasunek %1,0 hobetu zuten emaitza, hobekuntza neurritsuko bilakaera batean.


Industriaren susperraldiak hirugarren hiruhilekoan jarraituko duela ezin da ziurtzat jo. Alde batetik, IPIaren uztaileko datuek, jadanik argitaratuak, tasa negatiboak zenbatetsi zituzten energiaren bestelako talde guztietan. Beste aldetik, industria osoaren eskari berrien kopurua ahultzen ari da aurreko datuen aldean.

Eraikuntza izan zen berriro ekonomiaren sektore dinamikoena, bere balio erantsia %2,9 areagotu zuelako. Tasa hori esanguratsua da, baina aurreko datuetatik oso beherago dago. Sektorearen bi osagai nagusietatik, eraikinenak erakutsi zuen berriro bizitasun handiena. Hain zuzen ere, eraikuntzaren koiuntura inkestak zenbatetsi du eraikinen urte arteko tasa %4,4 izan zela eta obra zibilarena, berriz, %2,5. Hala eta guztiz ere, bi atal horien norabidea guztiz kontrakoa da, lehenengoa hozten ari delako eta bigarrena indarra hartzen ari delako. Eraikinen moteltzea lotuta dago etxebizitzaren salmentak duen erritmo galerarekin, epe luze batean lehen aldiz, eginiko eragiketen kopurua jaitsi zelako (%-3,0).


Enplegu sorrerak bat egin du BPGaren moteltze prozesuarekin eta apaltzeko joera erakusten ari da bere emaitzetan. Hain zuzen ere, 2019ko bigarren hiruhilekoan, enpleguaren urte arteko gehikuntza tasa %1,7 izan zen, aurreko datua baino hamarren bat gutxiago eta azken lau urtekoan aldagai horren ezaugarria izan den %2,0ko tasatik beherago. Aipatu berri den hazkunde tasa horrek esan nahi du azken hamabi hilekoetan Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan lanaldi osoko 16.000 lanpostu garbi inguru sortu direla, 2018ko batez bestekoan sortu ziren 24.500 haietatik beherago.

### Enpleguaren bilakaera Urte arteko aldakuntza tasak

Kontu ekonomikoak



Afiliazioa



Iturria: Eustat eta Gizarte Segurantzza

Sortu diren lanpostu berriak sektoreka banatzen direnean, agerian geratzen da bakoitzak ekonomian duen pisuarekin duen lotura estua. Esate baterako, enplegu berri horietatik 12.200 zerbitzuetako jardueretan sortu ziren, industriak (1.800) eta eraikuntzak (1.900) ekarpen apalagoak, baina esanguratsuak, egin zituzten bitartean. Urte arteko aldakuntza tasak ikusita, zerbitzuetako gehikuntza %1,8 izan zen, apaltzeko joera garbia erakutsiz. Industriarena, berriz, %0,9an kokatu zen berriro. Tasa neurritsu hori industria jarduerak azken hiruhilekoetan bizi duen apaltzeak azaltzen du. Azkenik, eraikuntzaren urte arteko tasa %3,3ra iritsi zen, bere bilakaeran gorabehera handiak izaten dituela.

BPGaren eta enpleguaren konbinaketak iradokitzen du itxurazko produktibitatearen irabazia %0,5 izan zela. Zenbaki hori aurreko epealdietan lortutakoaren antzekoa da eta nahiko txikia da aldagai

horren batez besteko historikoarekin (%1,0) alderatzen bada. Tradizionalki, industriak egin dio ekarpen handiena produktibitatearen irabaziarri. Hala eta guztiz ere, oraingoa bezalako motelaldietan ekoizpena enplegua baino bizkorrago gutxitzen da, produktibitate galera iragankorrak ekarriz. Hain zuzen ere, bigarren hiruhilekoan, galera hori %0,1era mugatu zen. Beste aldetik, zerbitzuetako irabazia %0,8ra iritsi zen. Eurogunearen kasuan, produktibitatearen irabazia azken hiruhilekoetan hutsala edo apur bat negatiboa izan da, Europar Batasunarena lau hamarrenen inguruan egon den bitartean.

Enplegu sorreraren moteltzeak jarraipena izan du hirugarren hiruhilekoan ere, Gizarte Segurantzako afiliazioaren uztailako, abuztuko eta iraileko erregistroetatik eratorzen denez. Hileko horietan afiliatuen kopurua %2,0 baino zertxobait gehiago hazi bazen ere, kontuan hartu behar da zaintzaile ez-profesionalei gaur egun ematen zaien tratamenduak emaitza desitxuratzen duela. Hain zuzen ere, pertsona horiek Gizarte Segurantzari ordaintzen dituzten kuotak gobernu espainiarrak beregain hartu dituzenez, kolektibo horren gehikuntza garrantzitsua gertatu da EAEn. Afiliazioaren datuak zaintzaile horiek kontuan hartu gabe aztertzen badira, hirugarren hiruhilekoaren urte arteko gehikuntza tasa %1,4ra mugatzen da, bigarren hiruhilekoan eskuratu zen %1,7 hura baino txikiagoa delarik.

Zaintzaile ez-profesional horietatik gehien-gehiena emakumeak dira. Beraz, indarrean dagoen aldaketa horrek bereziki kolektibo horretan izan du eragina. Hain zuzen ere, emakumeen afiliazioa, guztira, %3,4 hazi zen irailean, baina tasa hori %1,9ra mugatzen da zaintzaileen efektua kentzen denean. Beste aldetik, eragina gizonen artean txikiagoa da eta iraileko urte arteko gehikuntza %1,4 izan zen, baina %1,1 bakarrik seriea zuzentzen bada.

## **Barne eta kanpo eskaria**

EAEko BPGak bigarren hiruhilekoan erakutsi zuen egonkortasunak ez du esan nahi hazkundeak aurreko epealdietako osaera bera izan zuenik, hari jarraipena emanez. Izan ere, barne eskariak moteltze garrantzitsua ezagutu zuen aurtengo bigarren hiruhilekoan, baina kanpo saldoaren zeinu aldaketak konpentsatu zuen, azken horrek ekarpen positiboa egin ziolako hazkundeari. Horri esker, kanpo arloak amaiera eman dio lau urteko epealdi luze bati, zeinean edo ez baitzuen ezer ekartzen edo hamarren gutxi batzuk kentzen baitzizkion BPGari. Esportazio errealek bigarren hiruhilekoan lortu zuten bultzada sendoak azaltzen du emaitza positibo hori, are deigarriagoa dena kontuan hartzen bada nazioarteko merkataritza, sortutako tentsioen ondorioz, murrizten ari dela. Tentsio horien jatorria, beste faktore batzuen artean, AEBen eta Txinaren arteko merkataritza gerran, Brexitaren negoziazioan eta Ekialde Ertainean, bereziki Iranen eta AEBen artean, bizi den gatazkan dago.

Aipatua izan denez, barne eskariak nabarmen moteldu zuen bere aldakuntza tasa %2,0ra arte, lehen hiruhilekoaren datua baino sei hamarren beherago eta 2018ko batez bestekoa baino puntu oso bat beherago dagoela. Agregatu horren bi osagai nagusiek aurreko hiruhilekoetan baino portaera motelagoa erakutsi zuten, baina apaltze biziena kapital eraketa gordinak izan zuen. Aitzitik, azken kontsumoan eginiko gastuak bi hamarrenetan bakarrik gutxitu zuen aurreko datua, nahiz eta beraren joera beherantz doan zalantzarik gabe.

## ESKARIAREN ALDAGAIK

Urte arteko aldakuntza tasak

	2017	2018	2018			2019	
			II	III	IV	I	II
<b>BPG erreala</b>	<b>2,8</b>	<b>3,0</b>	<b>3,2</b>	<b>3,0</b>	<b>2,6</b>	<b>2,2</b>	<b>2,2</b>
Gastua azken kontsumoan	2,9	2,5	2,6	2,4	2,2	2,1	1,9
- Familien gastua kontsumoan	3,1	2,7	2,8	2,6	2,5	2,2	1,9
- Adminis. gastua kontsumoan	2,1	1,6	1,6	1,7	1,3	2,0	2,0
Kapital eraketa gordina	3,1	4,7	4,9	4,8	4,6	4,0	2,5
- Ekipamendu ondasunak	3,5	3,7	4,9	3,4	2,3	3,3	2,2
- Gainontzeko inbertsioa	2,9	5,2	4,9	5,6	6,0	4,4	2,6
Barne eskaria	2,9	3,0	3,1	3,0	2,8	2,6	2,0
Esportazioak	4,8	3,0	3,0	2,1	0,7	-1,4	2,8
Inportazioak	5,0	3,0	2,8	2,2	1,1	-0,8	2,6

Iturria: Eustat.

Kontsumoaren moteltze leuna bakarrik familien kontsumoan gertatu zen, administrazio publikoen kontsumoak bilakaera egonkorragoa erakutsi zuen bitartean. Zehazkiago adierazita, kontsumo pribatuak %1,9ko urte arteko aldakuntza jaso zuen, aurreko hiruhilekoan eskuratutakoa baino hiru hamarren gutxiago, jatorria 2018ko hasieran duen moteltzeko joera batean. Familien kontsumoa nagusiki enpleguaren sorrerak eta soldata errealen igoerak baldintzatzen dute. Dagoeneko adierazi denez, enpleguak apaltzeko joera leuna marraztu du, kontsumora hedatzen ari dena. Beste aldetik, soldata errealak berriki areagotu dira, baina familiak diru sarrera handiago horien zati bat zorpetzea arintzeko erabiltzen ari dira, nahiz eta interes tasa oso txikiak erraztasunak eskaintzen dituzten.

Kapital eraketa gordinak argi eta garbi apaldu zuen bere hazkunde erritmoa eta %2,5 hazi zen bigarren hiruhilekoan, 2018ko hasieratik aldagai horrek eskuratzen zuen %4,0 hartatik nabarmen beherago. Agregatuaren bi atalek aurrekoak baino urte arteko aldakuntza tasa txikiagoak

eskuratu zituzten, baina nabarmentzekoa da gainontzeko kapital eraketa gordina delakoak ezagutu zuen bizitasun galera handia. Atal horren barruan, eraikuntzan eginiko inbertsioa dago sartuta. Atal hori %2,6 areagotu zen, hots, aurreko hiruhilekoan baino ia bi puntu gutxiago. Eraikuntza arloa oso erritmo altuetan hazten ari zen eta oraingo moteltze honek beste burbuila bat sortzeko arriskua uxatu du. Beste aldetik, ekipamendurako ondasunetara bideratutako inbertsioak puntu bat galdu zuen eta %2,2 handitu zen. Bilakaera horren atzean dauden arrazoiak bat nazioarteko ziurgabetasuna da.

### KONTSUMO ETA INBERTSIOAREN ADIERAZLEAK

Urte arteko aldakuntza tasak

	2017	2018	2018			2019	
			II	III	IV	I	II
<b>Kontsumoa</b>							
Azalera eta kate handietako salmentak	2,2	1,9	1,8	-0,5	3,4	1,5	2,3
Txikizkako merkataritza indizea	1,7	0,7	1,2	-1,0	2,6	2,0	0,8
Kontsumo ondasunen ekoizpena	5,6	5,7	4,7	10,0	4,7	1,9	5,2
Kontsumo ondasunen inportazioa	4,2	-3,5	-4,7	-7,1	-0,4	-1,5	0,3
Turismoen matrikulazioa	7,3	4,6	8,6	10,8	-11,3	-4,4	-1,0
<b>Inbertsioa</b>							
Ekipo ondasunen ekoizpena	3,3	3,4	7,0	4,1	-5,4	1,2	-0,1
Ekipo ondasunen inportazioa	5,5	6,5	10,6	4,4	4,7	9,1	9,3
Zamakatarako ibilgailuen matrikulazioa	7,8	18,0	38,3	25,9	3,6	-2,8	-18,7
Etxebizitza berriak eraikitzeako oniritziak	26,7	20,3	88,5	16,7	3,6	30,0	-1,6
Lizitazio ofiziala	75,1	-26,8	0,9	-39,6	-62,9	32,2	-3,7

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Eustat, Aduana, Sustapen Ministerio, Seopan eta Trafiko Zuzendaritza Nagusiaren datuetan oinarrituta.

Inbertsioarekin zerikusia duten koiunturako estatistikek seinale kontrajarriak erakusten dituzte aldagai horren etorkizunaz, baina urte hau amaitu arte kapital eraketa gordina areagotuko dela pentsarazten dute, oraingoa baino erritmo apalxeagoan izango bada ere. Alde batetik, ekipamendurako ondasunen inportazioa, EAEko enpresen inbertsioari oso lotuta baitago, erritmo bizian hazten ari da oraindik. Beste aldetik, ondasun horien ekoizpenak, zati batean bakarrik geratzen baita autonomia erkidegoan, hainbat emaitza negatibo jaso ditu azken hilekoetan. Eraikuntzaren atalean, etxebizitza berriak eraikitzeako oniritzien gorakada garrantzitsuak bermatzen du eraikinen lanek bilakaera ona izango dutela ondorengo hiruhilekoetan. Aldi berean, lizitazio ofizialak ibilbide irregularragoa erakusten du. Azkenik, zama ibilgailuen matrikulazioa oso bizkor gutxitzen ari da, 2018an eskuratutako datu onen ondoren.



Barne eskariaren apaltzea konpentsatuta geratu da kanpo arloaren bultzada handiagoarekin, BPGaren gehikuntzari ekarpen positiboa, baina txikia, egin ziolako. Ondasunen eta zerbitzuen esportazioak, termino errealetan, %2,8 areagotu ziren aurtengo bigarren hiruhilekoan, urte hasieran pairatu zuten beherakada atzean utziz. Inportazioak, berriz, %2,6 handitu ziren. Hiruhilekoan hazkundeari egin dion ekarpen positiboa Europar Batasunean lortu denaren antzekoa da, eremu horretan ere hainbat hiruhilekoz kanpo saldoak hazkundeari hamarren batzuk kendu eta gero.

EAEko esportazioen hobekuntza agerian gelditzen da atzerrian saldutako ondasunen estatistika aztertzen denean, bigarren hiruhilekoan salmentak 6.877 milioi euroetara iritsi zirelako, serie historiko osoaren daturik gorena baita. Diru kopuru hori 2018ko epealdi berean saldutakoa baino %5,4 handiagoa da eta urrun dago aurtengo lehen hiruhilekoan jaso zuen %3,8ko beherakada hartatik.

Esportazioen balioak izan zuen gehikuntza energiaz bestelako ondasunetan bakarrik lortu zen, energiako produktuek salmentak murriztu zituztelako, hala kantitatean nola balioan. Hain zuzen ere, atzerrian saldutako erregai mineralen kantitatea aurreko urtekoa baino %6,7 txikiagoa izan zen eta beraien balioa, berriz, %4,1 apalagoa. Beraz, erregaien salneurria zertxobait garestitu zen, nahiz eta petrolioaren upelak 2019ko bigarren hiruhilekoan zuen prezioa eta aurreko urteko epealdi berean zuena oso antzekoak ziren. Aurtengo hirugarren hiruhilekoan, ordea, petrolioaren salneurria maiatzeko 71,9 dolarretatik (64,3 euro) abuztuko 59,0 dolarretara (53,0 euro) beheratu zen, baina irailean merkatze horren zati bat berreskuratu zuen, upela 63,6 dolarretara (57,8 euro) igota.

Saldu ziren energiaz bestelako produktuen balioa %6,4 hazi zen 2018ko kopuruarekiko, lehen hiruhilekoaren jaitsieraren ondoren. Talde batek baino gehiagok emaitza hobetu badu ere, nabarmendu behar da garraio materialaren bilakaera ona. Talde horrek hiru hiruhilekoz jarraian gutxitu zituen bere salmentak, Gasteizko Mercedes Benz enpresak erabaki zituen ekoizpen geldialdiek baldintzatuta. Halere, 2019ko bigarren hiruhilekoan %8,8ko urte arteko gehikuntza tasa eskuratu zuen, lehenengo aldiz 2.000 milioi euroko langa hiruhileko batean gaintuz. Ibilgailu automobilen salmentak suspertu gabe jarraitzen du (%-11,8) eta trenbideetarako ibilgailuei esker lortu zuen emaitza on hori agregatuak, Erresuma Batura bideratutako salmenta garrantzitsu batek taldearen salmentak laukoiztu zituelako.

EAEko esportazioen egituran pisu handia duen beste osagaietako batek, makinak eta tresnak delakoak, %7,0ko gehikuntza eskuratu zuen eta aurreko hiruhilekoetan erakutsi zuen joera positiboari eutsi zion. Aitzitik, metal arruntak eta beren manufakturek bilakaera lauagoa eskaini zuten, %0,6ko jaitsiera txiki batekin. Azkenik, plastikoaren eta kautxuaren esportazioak

aldakuntza tasa garrantzitsua (%44,5) lortu zuen, baina bereziki 2018ko emaitza txarrarekin alderatzen delako lortzen da tasa hori, berez 2019ko bigarren hiruhilekoaren datua aurreko hiruhilekoetako balioetatik hurbil dagoelako.

Berriro ere, esportazioen gorakada esanguratsuagoa izan zen herrialde garatuetan (%5,4). Beraz, ekonomia horiek EAEko enpresentzat duten pisua areagotu da. Hain zuzen ere, atzerrian saldutako guztiaren %82,4 ELGEko partaideak diren herrialdeetara bideratu zen, garapen bidean dauden ekonomietara gainontzeko %17,6 bidali zen bitartean. Azken herrialde multzo horretara 1.208 milioi euro balio zuten ondasunak eraman ziren, 2018ko hiruhileko berarekin alderatuta %2,9ko gehikuntza delarik.

## ESPORTAZIOEN HELBURUA

Urte arteko aldakuntza tasak eta mila euro

	2017	2018	2018		2019		
			III	IV	I	II	II
<b>GUZTIRA</b>	<b>10,5</b>	<b>6,8</b>	<b>6,9</b>	<b>3,7</b>	<b>-3,8</b>	<b>5,4</b>	<b>6.877.292</b>
ELGE	10,6	7,9	6,2	6,3	-3,2	5,9	5.669.574
Europar Batasuna	9,4	7,7	8,2	6,3	1,2	10,9	4.707.515
Frantzia	12,4	1,6	-4,1	-7,6	-6,5	3,0	1.049.222
Alemania	3,1	5,2	5,3	3,4	3,0	7,4	1.104.548
Erresuma Batua	16,6	14,5	20,8	20,6	14,6	54,9	628.450
Italia	2,1	13,8	15,7	6,2	-6,0	-2,7	316.980
AEB	18,5	16,4	-0,8	9,3	-14,0	-18,3	458.270
ELGETik kanpokoak	9,9	2,2	10,0	-7,7	-6,5	2,9	1.207.718

Iturria: Eustat.

Bigarren hiruhilekoz jarraian, AEBetara zuzendutako esportazioek behera (%-18,3) egin zuten nabarmen. Merkatu horretara bidaltzen diren EAEko produktuen osaera aldatzen ari da eta erregai mineralen pisua gutxitzen ari da beste produktu batzuen mesedetan. Esate baterako, erregai mineralen pisua esportazio guztietatik %45,9 izatera iritsi zen, baina 2019ko bigarren hiruhilekoan guztizkoaren %22,5 baino ez ziren izan, %50etik hurbil zegoen beherakada bat jasota. Jaitsiera hori makineriaren bilakaera onak konpentsatu zuen neurri batean. Izan ere, makineria mekanikoa eta elektrikoa batuta guztizkoaren %34,3 biltzen dute. Garrantzia duen hurrengo taldea galdaketa manufakturak dira, esportatutako guztiaren %10,3 biltzen baitu eta urte arteko tasan %31,6ko beherakada izan baitzuen, hazkunde bizia izan zuen hiruhileko batekin alderatzen delako.

Europako merkatuak nabarmen hobetu zuen bere emaitza bigarren hiruhilekoan, salmenten balioa %10,9 handituta. Hiruhilekoaren emaitza ona hainbat arantzel kapituluk justifikatzen dute. Beraien artean, erregai mineralen salmenta nabarmendu behar da, guztizkoaren %10,1 ordezkatzeko baitu %34,5eko gehikuntza tasa bati esker. Era berean, kautxuaren esportazioak %97,5eko gorakada ezagutu zuen, baina produktu horien pisua %5,6 baino ez da. Galdaketa manufakturrek ere igoera esanguratsua (%16,2) lortu zuten. Aitzitik, ibilgailu automobilen salmentak oso bestelako emaitza izan zuen, urte arteko tasan %6,1 jaitsi zelako. Talde horrek esportazio guztien laurdena biltzen du.

Beste hiruhileko batez, Frantzia izan zen EAEko produktuen helmuga nagusia, hiruhilekoan 1.105 milioi euro saldu zirelako merkatu horretan, aurreko urteko emaitzarekin alderatuta %7,4 gehiago baita. Gehikuntza nabarmen horren zati handi bat erregai mineralen bilakaera onaren ondorioa da, aurreko urteko emaitza bikoiztu zuelako. Pisua duten beste kapitulu batzuek ere, hala nola galdaketarekin zerikusia dutenek, aldakuntza tasa positiboak jaso zituzten. Hala eta guztiz ere, ibilgailu automobilen salmentak beherakada garrantzitsua izan zuen, %27,7, aurreko lau hiruhilekoetan gertatu zirenei gehitzen zaiena.

Alemaniarra esportatutakoa %3,0 handitu zen bigarren hiruhilekoan eta aurreko hiru epealdietan erakutsi zuen joera negatiboarekin apurto du. Hain zuzen ere, herrialde horrekin dauden merkataritza harremanetan pisu gehien duen kapituluan gauzatu zen zeinu aldaketa. Izan ere, ibilgailu automobilerik Alemaniarra esportatutako guztiaren erdia baino zertxobait gehiago biltzen dute eta %6,1eko gehikuntza lortu zuten, aurreko hiruhilekoetan galdutakoaren zati bat berreskuratuz. Nolabaiteko pisua duten gainontzeko kapituluek ere hobetu zituzten urte arteko datuak, salbuespen bakarra burdina eta altzairuaren galdaketa delarik, beren salmentak zertxobait (%-1,8) gutxitu zituelako.

2017an eta 2018an bezala, aurtengo lehen erdian Erresuma Batuak eskuratu zituen gehikuntza tasak Europako batez bestekoa baino askoz ere handiagoak izan ziren. Bigarren hiruhilekoaren kasuan, merkatu horretan eginiko salmentak %54,9 deigarri bat hazi ziren, EAEko produktuentzat herrialde hori hirugarren merkatu garrantzitsuena dela finkatuz. Gehikuntza horren zati handi bat 250 milioi euro kostatu zuen trenbideetarako materialaren salmenta baten ondorioa da, merkatu horretan EAEko enpresak ondo posizionatuta daudela frogatuz. Nabarmendu beharreko beste talde bat burdinaren eta altzairuaren galdaketarena da, esportazioa %2,6 areagotu zuelako. Aitzitik, jaitsiera oso esanguratsua izan zen ibilgailu automobilen kapituluan (%-26,0), hiru hiruhilekoz jarraian tasa negatibotan dagoelako.

Italiako ekonomia gelditasuneko egoera batean dago murgilduta eta horrek bere isla dauka atzerrian egiten dituen erosketetan. EAERI dagokionez, Italiara esportatutakoa %2,7 murriztu zen

bigarren hiruhilekoan. Hala eta guztiz ere, herrialde horretara esportatutako 317 milioi euroak serie historiko osoaren kopuru altuenetako bat da. Hala ibilgailu automobilen (%-21,9) nola burdinaren eta altzairuaren galdaketaren (%-14,3) salmentak oso aldakuntza tasa negatiboak jaso zituzten, neurri batean kautxuaren portaera bikainak konpentsatu zituena, aurreko urteko datu txarraren aldean salmentak hirukoiztu zituelako.

Garapen bidean dauden herrialdeetara esportatutakoa %2,9 apala hazi zen, aurreko bi hiruhilekoetako jaitsierei amaiera emateko balio zuen arren. Herrialde horietara bidaltzen diren EAEko produktuen egiturari pisu handiena dutenek lotura estua dute makineriarekin, guztizkoaren %31,3 biltzen baitu, eta portaera ona izan zuten, hala makina elektrikoen kapituluak (%16,2) nola, bereziki, makineria mekanikoen taldean (%20,1). Bilakaera on horretatik oso urrun, bai ibilgailu automobilerik (%-14,9) bai galdaketa manufakturerik (%-18,2) oso beherakada esanguratsuak jaso zituzten.

Lau hiruhilekoz jaitsierak pilatu ondoren, Txinara esportatutakoa %31,2 handitu zen 2019ko bigarren hiruhilekoan, guztira 154 milioi euro balio zuten produktuak salduta. Zenbaki hori serie historikoaren hirugarren emaitza altuena da. Batez ere, makineria bidaltzen da Asiako herrialde horretara eta oso portaera hedakorra izan zuten, bereziki makina eta tresna elektrikoen kapituluak (%66,7). Orobat, galdaketa manufakturerik ere nabarmen hobetu zituzten salmentak herrialde horretan (%20,4), aurreko hiruhilekoaren datu txarraren ondoren.

Inportazioak %4,7 areagotu ziren bigarren hiruhilekoan, urte hasierako emaitzatik oso hurbil dagoen tasa bat delarik, nahiz eta 2018ko batez bestekoa baino zertxobait txikiagoa den. Hala energiaren erosketak (%6,9) nola energiaren bestelakoak (%3,9) portaera positiboa erakutsi zuten. Azken horien artean, makinen eta tresnen inportazioak izan zuten emaitza ona (%7,8) nabarmendu behar da, ekipamenduan egiten den inbertsioarekin harreman estua duelako. Gainontzeko taldeek ere aldakuntza positiboak eskuratu zituzten, salbuespen bakarra metal arruntak eta beren manufakturerik izan zirelarik, erosketak %4,3 gutxitu zituztelako.

Herrialde garatuetan eginiko erosketak %10,6 areagotu ziren, aurreko hiruhilekoetako emaitzak nabarmen gaituz. Aitzitik, garapen bidean dauden herrialdeetatik etortzen direnak %6,2 gutxitu ziren. Ohikoa izaten denez, erregai mineralen jatorriak markatzen du bi herrialde multzo horien bilakaera. Errusia izan zen berriro erregai mineralen hornitzaile nagusia, baina Norvegiak eta AEBek oso nabarmen areagotu zuten beren partaidetza 2018arekiko, Nigeriaren, Brasilen, Iraken eta beste herrialde batzuen kaltetan.

**INPORTAZIOEN JATORRIA**

Urte arteko aldakuntza tasak eta mila euro

	2017	2018	2018		2019		
			III	IV	I	II	II
<b>GUZTIRA</b>	<b>20,5</b>	<b>8,8</b>	<b>13,1</b>	<b>10,6</b>	<b>5,1</b>	<b>4,7</b>	<b>5.267.890</b>
ELGE	17,8	4,4	4,9	6,7	1,2	10,6	3.599.976
Europar Batasuna	13,4	-0,8	3,4	-2,1	3,3	4,4	2.728.400
Frantzia	6,8	4,9	4,3	-0,5	6,3	7,5	800.886
Alemania	12,0	5,6	0,6	-3,2	-1,3	-7,9	453.340
Erresuma Batua	62,8	-43,0	2,6	-45,6	-28,4	-18,2	126.835
Italia	7,7	6,9	10,4	-2,5	-2,0	-3,6	255.024
AEB	18,8	13,5	25,8	51,1	85,6	152,5	204.948
ELGETik kanpokoak	26,9	18,4	30,6	19,3	14,3	-6,2	1.667.914

Iturria: Eustat.

Deigarria da berriro AEBetan eginiko erosketek izan duten gehikuntza tasa, batez ere lehenago aipatu diren erregai mineralen bilakaeraren ondorioz, herrialde horretatik inportatzen den kapitulu garrantzitsuena baita. Europako herrialde nagusien artean, Alemaniak bakarrik hobetu du bere emaitza (%7,5), makineriaren erosketari esker, nahiz eta ibilgailu automobilen inportazioak behera egin zuen (%-5,2). Erresuma Batuan eginiko erosketak gutxitu ziren, baina jaitziera ez dago lotuta erregai mineraleri, burdinaren eta altzairuaren galdaketari baizik (%-24,4).

Aurreko guztiaren ondorioz, bigarren hiruhilekoaren merkataritza saldoa 1.609 milioi euroetara iritsi zen, azken hiru urteko epealdian jaso den zenbakirik gorena baita. Energiatz bestelako saldoa 2.394 milioi eurotako izan zen eta energiaren saldoa, berriz, -785 milioi eurotako. Ohikoa izaten denez, saldo positiboa herrialde garatuekin egiten diren salerosketetan lortzen da. Hain zuzen ere, Frantziarekiko merkataritza saldoa 651 milioi euroetara iritsi zen. Erresuma Batuekiko, berriz, 502 milioi euroetan kokatu zen eta bai Alemaniarekin bai AEBekin eskuratu zirenak 250 milioi euroen inguruan ibili ziren. Garapen bidean dauden herrialdeei dagokienez, merkataritza defizita 460 milioi eurotako izan zen. Azpimarratu behar dira Errusiarekin (315 milioi euro) eta Txinarekin (207 milioi euro) dauden saldo negatiboak.

## Prezioak, soldatak eta kostuak

Inflazioa aztertzen duten adierazleek, oro har, maila neurritsuetan jarraitu zuten, kasu batzuetan aurreko epealdietakoak baino balio txikiagoak jaso zituztela. Izan ere, BPGaren deflatorea %1,1 igo zen, aurreko hiruhilekoetan beste. Azpimarratzekoa da kontsumo publikoaren deflatoreak izan zuten apaltzea, %2,3tik %1,8ra jaitsi zelako. Beste aldetik, kontsumo pribatuaren deflatorea %1,1ean kokatu zen, KPIak jaso zuten gehikuntza bera delarik. Azkenik, kapital eraketa gordinaren deflatoreak (%1,1) aurreko hiruhilekoaren datua beherantz eraman zuen.

KPI indizeari dagokionez, adierazle horrek beheranzko joera berreskuratu zuen maiatzean, apirileko suspertze arinaren ondoren, eta hileko horretan jaso zuen %1,7 hartatik ezagutzen den azken hilabeteko, hau da, abuztuko %0,6ra gutxitu zuen urte arteko hazkundea. Berrito ere, inflazioaren norabidea energiaren portaerak baldintzatu zuen erabat eta beheranzko etengabeko joera erakutsi zuen, azken hilekoetan Brent motako upelaren prezioak izan zuten beherakada esanguratsuaren ondorioz.

### KONTSUMOKO PREZIOEN INDIZEAREN BANAKETA

Urte arteko aldakuntza tasak eta ekarpenak

	2017	2018	2019			Ekarpena
			I	II	Abuztua	
<b>Inflazio osoa (%100)</b>	<b>2,0</b>	<b>1,6</b>	<b>1,3</b>	<b>1,1</b>	<b>0,6</b>	<b>0,6</b>
<b>Azpiko inflazioa (%81,4)</b>	<b>1,1</b>	<b>0,9</b>	<b>0,7</b>	<b>1,0</b>	<b>1,1</b>	<b>0,9</b>
- Elikagai landuak (%13,6)	0,0	0,9	0,5	0,3	0,7	0,1
- Industria ondasunak (%24,8)	0,3	-0,1	0,0	0,2	0,5	0,1
- Zerbitzuak (%43,0)	1,7	1,5	1,3	1,7	1,7	0,7
<b>Hondar inflazioa (%18,6)</b>	<b>6,5</b>	<b>4,6</b>	<b>3,6</b>	<b>1,7</b>	<b>-1,5</b>	<b>-0,3</b>
- Landu gabeko elikagaiak (%7,6)	3,7	2,9	1,5	0,1	1,2	0,1
- Energia (%11,0)	8,2	5,9	5,2	2,9	-3,3	-0,4

Iturria: INE.

Hain zuzen ere, petrolioaren prezioa 75 dolarretara iritsi zen, 2018ko urritik lehenegai horrek izan duen mailarik gorena baita, baina prezio horretatik behera egin zuen geroztik, 60 eta 65 dolarren bitartean kokatu arte. Merkatzearen arrazoi nagusiak AEBetako petrolio izakinen igoera eta nazioarteko tentsioen okerragotzea dira, munduko eskariaren sendotasuna ahulduz. Hala eta guztiz ere, Brent motako upelak berriro izan zituen gehikuntza iragankor garrantzitsuak irailaren

erdialdean, Saudi Arabiako petrolio industriari eginiko eraso baten ondorioz, herrialde hartako ekoizpena erdira jaitsaraziz.

EAEEn gertatu den bezala, Eurogunean ere inflazioaren presioak oso mugatuak izan ziren, bertan ere gorabehera handienak izaten dituzten osagaiak, hala nola energiak, salneurriak moteltzeko joera erakutsi zutelako. Euroguneke inflazioak EAEEn jasotakoa baino altuagoa izan zen berriro (%1,0 eta %0,6, hurrenez hurren), zeren eta energiaren salneurriaren aldakuntzek eragin handiagoa izaten baitute azken lurralde horretan, Europako beste herrialde batzuetan baino zerga gutxiago ordaintzen delako.

Orobat, lan kostuen gorakadak eta eskariaren etengabeko bultzadak ez zuten eragin berezirik izan azpiko inflazioaren bilakaeran eta adierazle horren tasak %1aren inguruko balioetan egonkortu dira. Osagaiak aztertuta, zerbitzuen taldeak izan zuen berriro hazkunde tasa altuena, abuztuan %1,7an kokatuta. Horrek baieztatzen du apirileko igoera iragankorra izan zela, Aste Santua 2018an eta 2019an hileko ezberdinetan ospatu izanak eraginda. Beste aldetik, energia bestelako ondasun industrialek azken hilekoetan erakutsi zuten goranzko joerari jarraipena eman zioten, abuztuan %0,5eko tasa jaso arte, 2017ko erdialdetik inoiz izan duen baliorik gorena baita. Azkenik, landutako elikagaien salneurriaren igoerak %1aren azpian segitu zuen, azken hilekoetan behin eta berriro gertatu den kontua baita.

KPIaren elementu hegakorrenek, hondar inflazioa osatzen baitute, lagundu zuten kontsumoko prezioen igoera moteltzen eta abuztuan hiru hamarrenetako ekarpen negatiboa egin zuten. Hondar inflazioaren jaitsiera horren erantzule bakarra energiaren beheranzko bilakaera izan zen, petrolioaren salneurriak urte arteko tasan izan zuen jaitsiera bereganatu zuelako. Aitzitik, landu gabeko elikagaiak tasa positiboetara itzuli ziren eta hondar inflazioaren jaitsiera hori neurri batean konpentsatu zuten.

Lehenago ere aipatu denez, inflazioaren moteltzea osagai gorabeheratsuenen bilakaeraren ondorioa izan da, bereziki argindarrarena, beraren urte arteko aldakuntza tasa %-9,1ean kokatu zuelako. Orobat, erregaien prezioek ere lagundu zuten, neurri txikiago batean izan bazen ere, abuztuko gehikuntza aurreko urteko hileko berean jasotakoa baino askoz ere txikiagoa izan zelako. Aurreko guztiaren ondorioz, etxebizitza eta garraioa izan ziren KPIaren indize orokorraren moteltzean eragin handiena izan zuten taldeak. Lehenak puntu bat eta sei hamarren gutxitu zuen bere tasa, %-3,4ra arte, eta bigarrenak lau hamarren. Aitzitik, elikagaiak eta alkoholik gabeko edariak biltzen dituen taldeak handitu zuen gehien bere urte arteko tasa, beraren osagai gehienetan prezio igoerak jasoz.



**EAE-KO KONTSUMOKO PREZIOEN INDIZEA**

Urte arteko aldakuntza tasak

	2017	2018	2018		2019		Abuztua
			III	IV	I	II	
<b>Indize orokorra</b>	2,0	1,6	2,2	1,6	1,3	1,1	0,6
Janariak eta alkohol gabeko edariak	1,2	1,5	1,8	0,9	0,7	0,3	1,1
Edari alkoholdunak eta tabakoa	1,7	2,2	2,7	2,0	1,4	0,1	-0,3
Jantziak eta oinetakoak	0,7	1,1	1,2	1,0	0,8	1,1	0,9
Etxebizitza, ura, elektrizitatea, gasa	3,7	2,6	4,9	3,3	2,0	0,1	-3,4
Etxeko hornidura	-0,3	0,3	0,4	0,7	0,8	0,8	1,5
Medikuntza	1,1	0,2	0,1	0,4	0,0	0,0	0,7
Garraioa	4,3	3,4	5,2	2,7	3,0	3,3	1,7
Komunikazioak	1,3	2,4	2,7	2,2	2,0	0,2	0,6
Aisia eta kultura	1,9	-0,4	-1,2	-0,5	-1,4	-0,1	0,3
Irakaskuntza	1,6	1,0	1,0	0,8	0,8	0,8	0,8
Hotelak, kafetegiak eta jatetxeak	1,8	1,9	1,8	2,1	1,7	2,3	1,9
Besteak	0,7	0,7	1,0	1,2	1,5	1,9	1,5

Iturria: INE.

KPIarekin gertatu den bezala, industriaren prezioetan ere inflazio presioak oso txikiak izan ziren. IPRIk adierazten duenez, abuztuan indize orokorra aurreko urtekoa baino %0,3 bakarrik altuagoa zen, 2018ko bigarren seihilekoan jaso ziren balio haietatik oso beherago. Moteltze bizi horren atzean, energiaren produktuen prezioak ere daude, urte arteko aldakuntza tasa negatiboetara itzuli zirelako. Halakorik ez zen pasa den urteko hasieratik gertatzen. Aitzitik, gainontzeko osagaiek nolabaiteko egonkortasuna erakutsi zuten eta, kasu batzuetan, gehikuntza txikiak ere jaso ziren.

Lan Harremanen Kontseiluak aurkezten duen eta uztailean arte iristen den hitzarmen kolektiboaren informazioaren arabera, negozioaren kolektiboaren ezaugarri esanguratsuenaren hazkunde eritimoak sendoa izaten jarraitu duela da, bereziki urtean zehar sinatu diren hitzarmenen kasuan, aurreko urteko mailaren aldean gorakada nabaria izan dutelako (%2,6). Beste aldetik, indarrean dauden hitzarmenen kasuan, igoera apalagoa izan zen (%1,9), baina nabarmendu behar da hitzarmen horien eraginpean dauden pertsonen kopurua ia 270.000tara iritsi zela, 2018ko uztailean 240.000etatik behera zegoen bitartean. Sektore mailako (%2,0) eta enpresa mailako (%1,8) hitzarmenen arteko aldea oraindik ere ez da oso handia.

**HITZARMENETAN ADOSTUTAKO SOLDATA IGOERAK**

Urte arteko aldakuntza tasak

	2015	2016	2017	2018	2019
Indarrean dauden hitzarmenak:	0,6	1,0	1,5	1,9	1,9
- Urtean zehar sinatutakoak	0,7	1,1	1,7	2,2	2,6
Negoiazio esparruaren arabera:					
- Sektoreko hitzarmenak	0,6	1,0	1,5	2,0	2,0
- Enpresako hitzarmenak	0,6	1,1	1,5	1,6	1,8

(\*) 2019ko uztailea arte adostutako lan hitzarmenak  
Iturria: Lan Harremanen Kontseilua.

Azkenik, INEk lan kostuez egiten duen estatistikak %2,8ko hazkundera aurkeztu zuen langile bakoitzeko atalean. Beraz, dagoeneko zortzi hiruhilekoz jarraian jaso ditu balio positiboak. Igoera horren arrazoiak, alde batetik, lanbide arteko gutxieneko soldataren igoera eta, beste aldetik, gehienezko kotizazioen muga handitu izana dira. Kostuen gehikuntza handiagoa izan zen lan egindako ordu bakoitzeko analisisian, benetan lan egindako orduen kopurua nabarmen murriztu zelako (%-4,5), aurtengo Aste Santua bigarren hiruhilekoan ospatu delako, 2018an lehen hiruhilekoan bizi zen bitartean.

**LAN KOSTUAK**

Urte arteko aldakuntza tasak

	2017	2018	2018			2019	
			II	III	IV	I	II
Lan kostu guztiak langileko	0,5	2,5	1,6	3,7	3,1	1,7	2,8
- Soldata kostua guztira	0,1	2,4	1,1	3,6	3,2	1,5	3,2
- Bestelako kostuak	1,6	2,9	3,2	3,8	2,8	2,3	1,8
Lan kostu guztiak orduko	0,2	2,3	-2,5	4,1	2,3	0,0	7,5
- Soldata kostua guztira	-0,2	2,1	-3,1	4,1	2,4	-0,2	8,0
- Bestelako kostuak	1,2	2,7	-1,0	4,4	2,0	0,5	6,3
Adostutako lan orduak	-0,1	0,3	0,3	-0,2	0,5	-0,1	-0,3
Benetan lan egindako orduak	0,0	0,3	4,3	-0,5	0,8	1,7	-4,5

Iturria: INE.

## Arlo publikoa

Tributu itunduen bilakaerari dagokionez, pasa den abuztua amaitutakoan, Araba, Bizkai eta Gipuzkoako Foru Ogasunen diru sarrerak 9.679,2 milioi euroetara iritsiak ziren, hots, 2018ko epe berarekin alderatuta 127 milioi gehiago bildua zen. Halaber, %1,3ko gehikuntza tasa eskuratu zuen. Aurtengo uztailean eta abuztuan zerga garrantzitsu batek ezagutu duen diru bilketa erritmo motelagoak diru bilketa osoaren igoera aurreko hilekoetakoa baino txikiagoa izatea eta %1,9aren azpian kokatzea eragin zuen, aurrekontuak egiteko oinarritzat hartu zen tasa baita. Hala eta guztiz ere, urte amaieran tasa positiboetara eusten bada, EAEko diru bilketak berriro lortuko du maximo historiko bat, 15.000 milioi euroko langa gaindituta.

Analisia zuzeneko zergapetzearekin hasita, adierazi behar da PFEZ zergak erakutsi zuela bilakaera dinamikoena, %2,5eko gehikuntza tasa bat lortuta. Gorakada horren oinarrian, batez ere lan etekinak direla-eta egindako atxikipenen gehikuntza (%5,4) dago, enplegu sorrerak eta soldaten igoerak lagunduta. Hala ere, Arabari dagokionez zerga horrek ez zuen bilakaera positiborik erakutsi, kontu puntual bategatik. Izan ere, lurralde horretan amatasuneko prestazioetatik eratorritako zergak itzuli ziren.

Zuzeneko zergapetzearen beste osagai handiak, hots, sozietateen gaineko zergak, balio negatiboak jasotzen jarraitu zuen eta %-5,8an kokatu zen. Hala ere, urria arte itxaron beharko da emaitza errealago bat edukitzeko, zeren eta enpresek 2018ko amaieran ordaindu zituzten konturako aurrerakinek zenbakiak desitxuratzten baitituzte.

Zeharkako zergapetzearen analisisan, bertako kudeaketa duen BEZaren portaera txarra nabarmendu behar da, %-1,7ko jaitsiera arina jaso zuelako. Horrek iradokitzen du ondasun batzuen kontsumoa, hala nola ibilgailuen salmenta, ahultzen ari dela. Era berean, abuztuan erregaien salneurriak izan zuen merkatzeak ere zerga horren bilakaerari kalte egin zion.

Azkenik, zerga berezien urte arteko aldakuntza tasa urrun dago BEZaren bilakaeratik, zeren eta lehenengoak %9,4 esanguratsua gehitu zirelako. Igoera horren arrazoi nagusia hidrokarburoen bilakaera ona izan da (%11,6), beraien kontsumoa unitate fisikotan zertxobait hazi zelako. Gorakadak izan zituen tabakoaren lanen gaineko zergak ere (%2,8), zigarretak ez diren bestelako produktuen salneurriaren igoerak lagunduta. Aitzitik, argindarraren zergaren diru bilketak tasa negatibotan jarraitu zuen, kontsumoetan hauteman zen jaitsieraren ondorioz.

**TRIBUTU ITUNDUEN BILAKAERA (urtarrila-abuztua)**

Mila euro

TRIBUTUAK	Diru bilketa		
	2018	2019	% Ald. 19/18
PFEZ	3.444.153	3.531.640	2,5
- Lanaren eta lanbide jard. etekinen atxikipenak	3.310.838	3.488.155	5,4
- Kapital higigarriaren etekinen atxikipenak	137.373	101.379	-26,2
- Kapital higiezinaren etekinen atxikipenak	57.334	58.211	1,5
- Ondare irabazien atxikipenak	33.910	23.165	-31,7
- Loteria eta apustu jakin batzuen g/zerga bereziak	41.157	54.970	33,6
- Prof. eta enpresariaren ordainketa zatikatuak	125.238	131.837	5,3
- Kuota diferentzial garbia	-261.696	-326.078	-24,6
Sozietateen gaineko zerga	1.172.182	1.104.683	-5,8
- Kapital higigarriaren etekinen atxikipenak	137.373	101.379	-26,2
- Kapital higiezinaren etekinen atxikipenak	57.334	58.211	1,5
- Ondare irabazien atxikipenak	33.910	23.165	-31,7
- Kuota diferentzial garbia	943.566	921.929	-2,3
Ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga	11.443	29.892	161,2
Oinordetza eta dohaintzen gaineko zerga	93.240	77.863	-16,5
Ondarearen gaineko zerga	179.695	162.208	-9,7
Kreditu entitateen gordailuen gaineko zergak.	24.565	25.139	2,3
Energia elektrikoaren ekoizpenaren gaineko zerga	17.682	3.450	-80,5
<b>ZUZENEKO ZERGAK GUZTIRA</b>	<b>4.942.960</b>	<b>4.934.875</b>	<b>-0,2</b>
BEZaren bertoko kudeaketa	2.674.594	2.630.451	-1,7
Ondare eskualdatzeen gaineko zerga	110.327	112.455	1,9
Egintza juridiko dokumentatuen gaineko zerga	31.020	31.694	2,2
Garraibide jakin batzuen gaineko zerga bereziak	17.758	19.434	9,4
Fabrikazioaren zerga berezia. Bertoko kudeaketa	1.022.259	1.117.888	9,4
Aseguru sarien gaineko zerga	48.428	48.916	1,0
Joko jardueren gaineko zergak	5.262	4.723	-10,2
Berotegi efektuko gasen gaineko zergak	2.673	1.862	-30,3
Iraungitako zergak	-4.135	-2.692	34,9
<b>ZEHARKAKO ZERGAK GUZTIRA</b>	<b>3.908.185</b>	<b>3.964.731</b>	<b>1,4</b>
<b>TASAK ETA BESTE. SARRERAK GUZTIRA</b>	<b>70.258</b>	<b>67.510</b>	<b>-3,9</b>
<b>BERTON KUDEATUTAKO TRIBUTU ITUNDUAK</b>	<b>8.921.403</b>	<b>8.967.116</b>	<b>0,5</b>
BEZaren doikuntza	843.308	921.102	9,2
Zerga berezien doikuntza	-212.542	-208.976	1,7
<b>TRIBUTU ITUNDUAK GUZTIRA</b>	<b>9.552.170</b>	<b>9.679.242</b>	<b>1,3</b>

Iturria: Foru aldundiak.

## Arlo finantzarioa

Merkataritzako tentsioek eta Brexitaren inguruan dagoen ziurgabetasunak finantza merkatuen bilakaera baldintzatu zuten udako hilekoetan. Orobat, banku zentral nagusiek moneta politikaz hartu zituzten erabakiek, bereziki Erreserba Federalaren interes tasen jaitsierak eta Europako Banku Zentralak (EBZ) onartuko zituen pizgarri berriek eragin zituzten igurikimeneak, irailean gauzatu baitzituzten, eragina izan zuten merkatuetan. Izan ere, hazkunde global txikiagoko eta arrisku handiagoko testuinguru batean, zor publikoaren errentagarritasuna modu orokorrean jaitsi zen, berriro minimo historikoetan kokatuz. Aldi berean, burtsen indizeek portaera mistoa erakutsi zuten, baina irailaren amaieran gora egin zuten nabarmen, euroak dibisa nagusien aldean balioa galdu zuen bitartean.

### ADIERAZLE MONETARIO ETA FINANTZARIOAK

	2017	2018	2019					
			Apir.	Maia.	Ekaina	Uztaila	Abuztua	Iraila
<b>Interes tasa ofizialak (%)</b>								
Europako Banku Zentrala	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
Erreserba Federala	1,50	2,50	2,50	2,50	2,50	2,25	2,25	2,00
Japoniako Bankua	-0,10	-0,10	-0,10	-0,10	-0,10	-0,10	-0,10	-0,10
Ingalaterrako Bankua	0,50	0,75	0,75	0,75	0,75	0,75	0,75	0,75
Txinako Banku Popularra	4,35	4,35	4,35	4,35	4,35	4,35	4,25	4,20
Brasilgo Banku Zentrala	7,00	6,50	6,50	6,50	6,50	6,50	6,00	5,50
<b>10 urteko zor publikoaren errentagarritasuna</b>								
Alemania	0,43	0,25	0,01	-0,21	-0,33	-0,44	-0,71	-0,58
Espainia	1,57	1,42	1,01	0,72	0,4	0,29	0,14	0,16
Grezia	4,12	4,38	3,37	2,9	2,49	2,04	1,63	1,39
Erresuma Batua	1,19	1,27	1,17	0,89	0,84	0,60	0,49	0,49
Italia	2,00	2,77	2,57	2,70	2,10	1,54	1,03	0,83

Iturria: Europako Banku Zentrala (EBZ) eta Espainiako Bankua.

Zehazkiago adierazita, Europako ekonomiaren ahultzeari erantzuteko, EBZk zorra erosteko egitasmoa berreskuratu zuen, azaroaren 1etik aurrera 20.000 milioi euro arteko kopurua hilero. Beste aldetik, gordailuen erraztasuna jaitsi zuen %-0,4tik %-0,5era, eta finantzaziorako eragiketa nagusiei ezarriko zaizkien interes tasak zein kredituaren erraztasun marginala bere horretan utzi zituen, hurrenez hurren %0,00an eta %0,25ean. Halaber, interes tasa oso apalei espero baino denbora luzeagoz eutsiko diela iradoki zuen. Interes tasen lehen igoera ez da 2020an gertatuko,

erakundeak orain arte ziurtatu zuenez, baizik eta igoeren perspektiba *sine die* atzeratuko dela. Erreserba Federalak, berriz, esku hartzeko tasa uztailean eta irailean jaitsi zuen, %1,75 eta %2,0 bitarteko urkila batean kokatu arte. Mugimendu horiekin, Fed saiatu da ekonomia estatubatuarra babesten Trumpen arantzel gerrak sortu duen ziurgabetasunetik. Orobat, irailean, lehen aldiz hamar urtean, Fed-ek hainbat aldiz sartu zuen likidezia, epe laburreko finantzazioaren murrizketa eta zorraren merkatuaren tentsioak lasaitzeko.

Txinako Banku Zentralak ere bat egin zuen malgutze horrekin, baina modu neurritsuagoan. Bitan jaitsi ondoren, esku hartzeko interes tasa %4,20an kokatu zuen, hots, 2015eko urritik zegoen mailan baino %0,15 bakarrik beherago. Badirudi Txinako moneta politikaren arduradunek ez dutela nahi mundu osoan bideratzen ari diren pizgarriekin bat egin, zorra gehiago igotzeak kezka sortzen dielako. Ingalaterrako eta Japoniako Bankuei dagokienez, biek erabaki zuten beren moneta politikak ez aldatzea.

Zorraren bigarren merkatuan, moneta politikaren erabakiek eta munduko hazkundearentzat iragarri diren beheranzko arriskuek ekarri dituzten igurikimenek errentagarritasuna murriztu zuten uztailean, abuztuan eta irailean, minimo historikotan kokatu arte. Halaber, atzeraldi global baten arriskuak beldurra sartu zuen merkatuetan, babes gisa zor publikora jo baitzuten. Horiek horrela, hamar urterako bonu espainiarraren errentagarritasuna %0,06ra jaitsi zen abuztuan, inoizko baliorik txikiena baita, alemaniarra %-0,72ra murriztu zen bitartean. Alemaniako tituluez gain, beste herrialde batzuetakoak ere negatibotan amaitu zuten iraila. Holandan, Austrian, Belgikan eta Finlandian ere negatiboak izan ziren, baita Frantzia eta Irlandan ere.

Dibisen merkatuari dagokionez, hasieran AEBetako interes tasak jaitsiko zirelako usteak gorantz bultzatu zuen euroaren balioa dolarrarekiko. Hala eta guztiz ere, Euroguneko emaitza ekonomikoek berriro ahuldu zuten diru europarra. Hain zuzen ere, diru bakarrak behera egin zuen irailean, euroa 1,10 dolarren truke trukatu arte, azken bi urteko baliorik txikiena baita. Balioa galtzeko joera hori yenaren eta libera esterlinaren aurrean ere gertatu zen. Benetako truke tasa nominalaren terminoetan, herrialde industrializatutakoekin erkatuta, euroak balioaren %1,0 galdu du urtea hasi zenetik.

Abuztuko lehen hamabostaldian, burtsaren adierazle nagusiek behera egin zuten, ekonomiaren hazkundeaz zegoen ziurgabetasunagatik, merkataritza tentsioen igoeragatik eta zor publikoen errendimenduen jaitsieragatik. Burtsetako galerak %5,0 gaintzera iritsi ziren eta urte osoko ekitaldi txarrenak jaso zituzten. Espainian, IBEX 35 indizea %4,2 jaitsi zen, 8.809,20 puntuetan kokatu arte. Abuztuko bigarren erdian, merkataritzaren tentsioak lasaitu zirenean eta Txinak ekonomian pizgarri gehiago ezarriko zituela pentsatuta, indizeek gora egin zuten. Irailean ere joera horri eutsi zioten, EBZk pizgarrien sorta berria iragarri zuenean. Aurreko guztiaren ondorioz,

Eurostoxx-50 indizeak irailaren amaiera arte %18,9ko irabaziak pilatu zituen. Dow Jones indizeak, berriz, %15,4ko irabaziak izan zituen eta IBEX-35 indizeak 9.245 puntuetara egin zuen gora, bere balioaren %8,3 irabazita.

#### ADIERAZLE MONETARIO ETA FINANTZARIOAK

	2017	2018	2019					
			Apr.	Maia.	Ekaina	Uztaila	Abuztua	Iraila
<b>Truke tasak</b>								
Dolarra/euro	1,129	1,181	1,124	1,118	1,129	1,121	1,112	1,100
Yena/euro	126,7	130,4	125,44	122,95	122,08	121,41	118,18	118,24
Libera esterlina/euro	0,876	0,885	0,862	0,872	0,891	0,899	0,916	0,891
Yena/dolarra	112,2	110,4	111,6	109,9	108,1	108,2	106,2	107,5
€ efektibo nominala	96,6	99,0	96,7	97,4	97,9	97,5	98,1	97,4
<b>Burtsa indizeak (*)</b>								
IBEX35	7,4	-15,0	12,1	5,4	7,7	5,0	3,6	8,3
Eurostoxx-50	6,5	-14,3	17,1	9,3	12,7	15,5	14,2	18,9
Dow Jones	25,1	-5,6	14,0	6,4	14,0	15,2	13,2	15,4
Nikkei 225	19,1	-12,1	11,2	2,9	6,3	7,5	3,4	8,7
Standard & Poors	19,4	-6,2	17,5	9,7	17,3	18,9	16,7	18,7

(\*) Hazkunde metatua urte hasieratik hilekoaren azken egunera arte.  
Iturria: Europako Banku Zentrala (EBZ) eta Espainiako Bankua.

Euriborra %-0,339an kokatu zen irailaren amaieran, abuztuan jaso zuen %-0,356 hura baino zertxobait gorago, abuztukoa gaur arte izan duen baliorik txikiena baita. Euriborraren igoera txiki hori bat dator EBZren azken erabakiekin, zeinetan bankuei arnasa ematea erabaki baitzuen, gehiegizko likideziarengatik ordaindu behar dituzten interes tasak aldatuz. Mugimendu hori eta interes tasa ofizialak negatibotan jarri ez izana albiste onak izan dira merkatuarentzat. Hala eta guztiz ere, merkatuek euriborra urratsez urrats suspertuko dela uste duten arren, epe ertainean eremu positibora itzultzea baztertuta dago. Hori usteko arrazoia da Euroguneko ekonomiaren ahultasunak eta inflazio apalak pentsarazten dutela euroaren zaindariak epe ertainean ere moneta politika egokitzailaren alde jokatuko duela.

Interes tasa apaleko agertoki hori egon arren, gero eta gehiago dira hipoteka interes finkoan hartzen duten pertsonak; hau da, hipoteka garestiago bat nahiago dute, baina diru kopuru bera ordainduta lehen kuotatik azkenera arte. Izan ere, INEren datuen arabera, ekainean sinatu ziren




hipoteka guztietatik %44,5 tipo finkoan formalizatu ziren. Beraz, ez litzateke harrigarria izango hileko gutxi berru bi motek ehuneko bera izatea.

### Etxebizitzen hipoteken bilakaera

Zenbatekoa (ezkerrean, milioiak) hipoteka kopurua (eskuinean, milak)

Euriborra 12 hiler



Iturria: INE eta Espainiako Bankua.

Beste aldetik, banku maileguen inkestak adierazten du aurtengo bigarren hiruhilekoan kreditu eskaria Espainian gutxitu zela bai enpresei bai familiei kontsumorako eta beste helburuetarako emandako kredituetan, baina gorantz egin zuela berriro etxebizitzak erosteko familiei emandako finantzazioak.

INEk hipotekez argitaratu dituen datuek joera hori ziurtatzen dute. Hain zuzen ere, 2019ko bigarren hiruhilekoan 4.929 hipoteka sinatu ziren, azken zortzi urteko kopururik altuena baita, 2018ko hiruhileko berean formalizatu zirenak baino %4,4 gehiago direlarik. Entitateek adierazten dutenez, interes tasa apalek, merkatuaren araudi eta zerga aldaketek, eta kontsumitzaileen konfiantza handiagoak lagundu dute hipoteken kopurua gehitzen.

Espainiako Bankuak ere jaso zuen kreditu osoaren gehikuntza txikiago hori eta horrela dago islatuta kredituen eta gordailuen bilakaeran. Horieta oinarrituta, EAEko eragileen kreditu guztiak 70.271 milioi euroetara iritsi zen, duela urtebete bat zegoen kopurua baino %2,6 gutxiago. Hala eta guztiz ere, aurtengo lehen hiruhilekoaren aldean gorantz egin du kredituak. Hain zuzen ere, 2019ko lehen hiruhilekoaren aldean, emandako kredituen guztizkoa 2.123 milioi euro baino

gehiagotan igo da. Hori horrela izanda ere, 2008ko amaieran zegoen zorra baino 17.000 milioi euro txikiagoa da. Hiruhileko arteko gehikuntza hori arlo publikora eta pribatura hedatu zen. Azken kasu horretan, ia segurua da hipoteka kredituek gorantz bultzatu dutela, lehenago ere adierazi denez.

## KREDITU ETA GORDAILUAK

Urte arteko aldakuntza tasak eta milioi euro

	2017	2018	2018			2019		Aldea 2008-IV eta 2019-II	
			II	IV	I	II	II Milioi. €	Milioi €	Tasa
<b>Kredituak</b>	<b>-1,0</b>	<b>-3,4</b>	<b>2,1</b>	<b>-3,4</b>	<b>-1,6</b>	<b>-2,6</b>	<b>70.721,4</b>	<b>-16.698,2</b>	<b>-21,7</b>
Arlo publikoa	-5,5	8,1	16,5	8,1	9,3	-1,3	8.330,4	6.302,0	252,4
Arlo pribatua	-0,5	-4,6	0,4	-4,6	-2,8	-2,8	62.391,0	-23.000,3	-28,2
<b>Gordailuak</b>	<b>4,7</b>	<b>2,3</b>	<b>5,5</b>	<b>2,3</b>	<b>6,4</b>	<b>4,3</b>	<b>84.971,4</b>	<b>8.627,8</b>	<b>11,3</b>
Arlo publikoa	11,2	36,6	38,8	36,6	22,0	5,2	4.480,9	-1.252,3	-21,8
Arlo pribatua	4,4	0,9	3,9	0,9	5,6	4,3	80.490,5	9.880,1	14,0
Agerikoak	20,9	6,6	11,5	6,6	11,4	8,8	66.481,9	39.494,4	146,3
Eperakoak	-27,3	-17,3	-18,1	-17,3	-14,5	-13,0	14.008,6	-29.614,3	-67,9

Iturria: Espainiako Bankua.

Burtsa merkatuen ezegonkortasunaren ondorioz, aurreztaileek bankuen gordailuen alde jokatu zuten berriro. Produktu horrek ez du interes handirik ematen, baina inbertitutako kapitala eta errentagarritasuna bermatzen ditu. Izan ere, gordailuen gutzizkoa 84.971 milioi eurotik gora iritsi zen, aurrekaririk gabeko diru kopuru bat delarik eta urtebete bat lehenago lortu zena baino %4,3 handiagoa dena. Arlo publikoaren eta pribatuaren ekarpenek ahalbidetu zuten gehikuntza tasa hori.

Ageriko eta konturako gordailuek eman zuten errendimendua (ekainean %0,04) eta finantzaz bestelako sozietateena (%0,09 ekainean) txikia izan zen arren, ageriko eta konturako gordailuak berriro izan ziren arlo pribatuak gehien kontratatu zuen produktua eta %8,8 hazi ziren. Beste hiruhileko batez, eta dagoeneko 22 hiruhileko dira, arlo pribatuak kontratatu dituen eperako gordailuak berriro gutxitu ziren. Produktu horretan inbertitutako guztiak gutxigatik gaintu zituen 14.000 milioi euroak, 1994ko amaieran zegoen mailara itzulita.

## Aurreikuspenak

Munduko hazkunde neurritsua izango da berriro 2019an eta 2020an, eta nazioarteko erakundeen joera orokorra izan da hazkunde tasak beherantz berrikustea. Consensus Forecasts-ek iraileko txostenean argitaratu zituen aurreikuspenetan, munduko ekonomiaren hazkundea %2,6an kokatu zuen 2019rako eta %2,5ean, berriz, 2020rako. 2019ko lehen seihilekorako zenbatetsi diren BPGaren datuek eta inflazioaren moteltze orokorrak munduko jarduera aurreikusi zena baino ahulagoa izango dela seinalatzen dute, moteltzea herrialde garatuei zein garapen bidean dauden ekonomiei eragingo diela. Hazkunde perspektibetarako arriskuak gero eta handiagoak dira eta beheranzko beste berrikusetak iradokitzen dituzte. Merkataritza eta teknologia tentsioek kalte egiten diote konfiantzari eta inbertsioa galgatzten ari dira. Halaber, finantza alorrean agertu daitezkeen balizko ahultasunek, tentsio geopolitikoek, Brexitaren erabakiak eta desinflazioaren presioek kontrako shock-en balizko aukerak zabaldu dituzte.

### EKONOMIA AURREIKUSPENAK

Urte arteko aldakuntza tasak

	BPG			Kontsumo prezioak		
	2018	2019	2020	2018	2019	2020
Munduko ekonomia	3,2	2,6	2,5	2,9	2,6	2,6
AEB	2,9	2,3	1,8	2,4	1,8	2,1
Kanada	1,9	1,5	1,7	2,3	2,0	2,0
Japonia	0,8	1,0	0,2	1,0	0,6	0,8
Eurogunea	1,9	1,1	1,1	1,8	1,3	1,3
Europar Batasuna	2,0	1,3	1,3	1,8	1,5	1,6
Alemania	1,5	0,5	1,0	1,8	1,4	1,5
Espainia	2,6	2,2	1,8	1,7	0,9	1,2
Frantzia	1,7	1,3	1,2	1,9	1,2	1,3
Herbehereak	2,6	1,7	1,4	1,7	2,5	1,6
Italia	0,9	0,0	0,4	1,2	0,8	1,1
Erresuma Batua	1,4	1,2	1,1	2,4	2,0	2,1
Asia eta Ozeano Barea	4,7	4,3	4,1	2,0	2,0	2,1
Ekialdeko Europa	3,2	1,8	2,6	6,1	6,1	5,4
Amerika Latinoa (Venezuela ezik)	1,4	0,9	2,0	9,5	9,6	7,7

Iturria: Consensus Forecasts (2019ko iraila).

AEBetan, Consensus Forecast-en arabera, ekonomiaren 2019ko hazkundera %2,3 izango dela aurreikusten da eta 2020an %1,8ra mugatuko da, pizgarri fiskala kenduko den heinean. Hala barne eskaria nola inportazioak ahulago arituko dira eta, horren ondorioz, 2019ko bigarren seihilekoan ekonomia jarduerak bizitasun txikiagoa izango duela uste da. Barne eskarian, kontsumo pribatuan eginiko gastuak bere horretan jarraituko du, lan merkatuaren sendotasunari esker. Hala ere, kapital eraketa gordinak okerrera egingo du nazioarteko testuinguruaren ziurgabetasunagatik.

Eurogunerako Consensus Forecast-ek zenbatetsi duen hazkunde tasa %1,1ean kokatu da bai 2019an bai 2020an. Hazkunde ahulak eta tasa horiek izan duten beheranzko berrikusketak, nagusiki, Alemanian dute jatorria. Herrialde hartako kanpo eskaria duela hileko batzuk espero zena baino ahulagoa dela pentsatzen da gaur egun. Gertakari hori lasta handia da bertako inbertsioarentzat eta industriarentzat ere. Eurogunerako aurreikuspenak Brexit ordenatu batean eta ondorengo ordena berri batean oinarritu dira. Halere, irteeraren behin-betiko modua zalantzazkoa da oraindik eta ziurgabetasun handia sartzen du ingurune europarrean.

Europako moneta politikari dagokionez, EBZk interes tasa baxuei eutsiko die 2019an eta 2020an. Halaber, ekonomia europarraren ahultzeari aurre egiteko, pizgarri sorta garrantzitsu bat jarriko du indarrean. Moneta agintaritzak kontuan hartuko dituen tresnetako batzuk esku hartzeko interes tasen jaitziera, epe luzerako banku maileguen konturako eragiketak eta bonu publikoen erosketa dira. Hala ere, moneta politikaren aukerak gero eta txikiagoak dira eta herrialde kideei gomendatzen zaie politika fiskalak areagotzeko.

Ekonomia espainiarrarentzat aurreikusi den hazkunde tasa, Consensus Forecasts-ek zenbatetsi duenez, %2,2 da 2019rako eta %1,8, berriz, 2020rako. CEPREDEK, bere aldetik, tasa horiek %2,3ra 2019an eta %2,1era 2020an eraman ditu. Kanpo saldoak ekarpen txikiagoa egingo dio ekonomia espainiarrari, nazioarteko narriaduraren ondorioz, baina barne eskariaren gehikuntza handiagoak konpentsatuko du. Familien gastuak eta kapital eraketa gordinak ekonomiaren hazkundera lideratuko dute, enpleguaren sorrerari, errenten igoerari, egoitzetan eta ekipamendurako ondasunetan eginiko inbertsioei eta finantzaziorako baldintza egokiei esker. Beste aldetik, gastu publikoa gutxiago haziko da kontuan hartu diren bi urte horietan.

Lan merkatuari dagokionez, CEPREDEK %2,3an eta %1,6an kokatu du enpleguaren hazkundera, hurrenez hurren, 2019an eta 2020an. Langabezia tasaren bilakaeraz egin dituen aurreikuspenek beheranzko ibilbidea marrazten dute aztertu den epealdian zehar eta %14,1era jaitziko da 2019ko batez bestekoan, ondorengo urtean %13,6an kokatzeko. Lanpostuen sorrerak izango duen moteltzeak eta biztanleria aktiboak izango duen gehikuntza txikiak langabezia tasaren bilakaera positiboa galdatuko dute.

**ESPAINIARAKO AURREIKUSPENAK HIRUHILEKOKA (2019ko iraila)**

Urte arteko aldakuntza tasak

	2019		2019	2020				2020
	III	IV		I	II	III	IV	
<b>BPG</b>	<b>2,3</b>	<b>2,4</b>	<b>2,3</b>	<b>2,3</b>	<b>2,3</b>	<b>2,1</b>	<b>1,8</b>	<b>2,1</b>
Kontsumo pribatua	1,7	1,9	1,7	1,9	2,0	1,7	1,4	1,7
Kontsumo publikoa	1,8	1,8	1,9	1,8	1,7	1,6	1,7	1,7
Kap. finkoaren eraketa gordina	2,3	3,2	2,8	4,1	4,5	4,7	4,7	4,5
- Inbertsioa ekipamenduan	0,2	1,6	1,8	2,7	4,4	5,4	5,1	4,4
- Inbertsioa landutako aktibotan	4,2	5,6	3,4	6,6	6,7	6,5	5,4	6,3
- Inbertsioa eraikuntzan	3,6	4,3	3,9	5,2	4,9	4,7	4,6	4,9
Barne eskaria	1,8	2,0	1,9	2,3	2,4	2,2	2,0	2,2
Esportazioak	2,1	2,6	1,6	2,9	2,9	3,0	3,1	3,0
Inportazioak	0,5	1,6	0,4	2,9	3,3	3,6	3,8	3,4

Iturria: Ceprede.


EAEko ekonomiaren eta inguruneko koiunturako adierazleak eguneratuta, Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak EAEko taula makroekonomikoa berrikusi du 2019rako eta 2020rako. Izan ere, 2019rako gaur egun zenbatetsi den batez besteko hazkunde tasa %2,2 da, aurreko hiruhilekoan argitaratu zena baino hamarren bat txikiagoa baita. Datorren urterako, aurreikuspena %2,0an mantendu da. Ekonomiaren aurreikuspen berri hauen bideragarritasuna Ardura Fiskalerako Agintaritza Independentearen (AIReF) oniritzia daukate, 6/2013ko Lege Organikoak, azaroaren 14koak, xedatzen duena betez. Eusko Jaurlaritzaren aurreikuspen gaurkotuak EAEko ekonomiarentzat beste erakunde batzuek argitaratu dituzten aurreikuspenen tarteko eremuan kokatzen dira. Urkila horren beheko muturrean, CEPREDEk zenbatetsi duen %2,1 dago eta goiko muturrean, berriz, Confebask-ek kalkulatu zuen %2,7a. Datorren urterako hazkunde aurreikuspenen mugak CEPREDEren %1,9ak eta Laboral kutxaren %2,1ak finkatu dituzte.

EAEko ekonomiaren hazkundera barne eskarian oinarrituko da. Osagai horrek BPGaren gehikuntzari 2,3 puntuko ekarpena egingo dio 2019an eta 2,2 puntu, berriz, 2020an. BPGak marrazten duen moteltzeko ibilbidea barne eskariaren agregatu guztiek erakutsiko duten ahultzearen ondorioz gertatuko da. Beste faktore batzuek gain, ekonomia eragileen konfiantza galera lasta esanguratsua izango da bilakaera horretan. Familien gastua kontsumoan lan merkatuaren egoera onean, kredituak lortzeko baldintza egokietan eta aberastasun efektuan oinarrituko da. Kapital eraketa gordinaren osagaiak ere ekonomiaren ziurgabetasunak sortu duen


efektua pairatuko du eta, hazkunde bizia erakutsiko duen arren, dinamismoa galduko du hala ekipamendurako ondasunen atalean nola eraikuntzaren atalean. Beste aldetik, kanpo eskariak ekarpen negatiboa egingo dio hazkundeari bai 2019an bai 2020an. Ekonomia ingurunean bizi den ziurgabetasunak EAEko esportazioak eta inportazioak motelduko ditu.

### 2019ko eta 2020ko aurreikuspenak Urte arteko aldakuntza tasak

Aurreikuspen panela 2019



Aurreikuspen panela 2020



Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza, CEPREDE (2019ko iraila), BBVA (2019ko ekaina), Confebask (2018ko abendua), Laboral kutxa (2019ko uztaila), Funcas (2019ko ekaina) eta Hispalink (2019ko uztaila BEGren aldakuntza).

Eskaintzari dagokionez, oraingo aurreikuspenak zehazten du hazkunde tasa positiboak lortuko direla jardura adar guztietan, salbuespen bakarra lehen arloa 2020an izango delarik. Urteko batez bestekoan, industriaren aldakuntza tasa %1,0an kokatuko da 2019an eta %1,4an, berriz, datorren urtean. Hazkunde horiek neurritsuak dira eta urrun daude azken ekitaldietan eskuratu zituen balioetatik. Eraikuntza izango da EAEko ekonomiaren sektore dinamikoena, baina apaltzeko joera garbia erakutsiko du. Zerbitzuek, berriz, moteltzeko zantzuak erakutsiko dituzte, baina hazkunde egonkorreko norabide batean. Izan ere, zerbitzuak %2,6 areagotuko dira 2019ko batez bestekoan eta %2,2 haziko dira 2020an.

Lan merkatuaren aldagaiei buruzko aurreikuspen berriak islatzen du enpleguaren gehikuntza tasa 2019an %1,6 izango dela eta 2020an, berriz, %1,2 haziko dela. Tasa horiek esan nahi dute 15.000 lanpostu inguru sortuko direla 2019an eta 11.500 enplegu gehiago 2020an. Beste aldetik,

langabezia tasa, urteko batez bestekoan, %9,9an kokatuko dela zenbatetsi da, datorren urtean %9,8ra jaitsiko den bitartean. Aurreikuspen horren arabera, langabezia tasa %10,0aren azpian egongo da hiruhileko guztietan.

### EAE-KO EKONOMIARAKO AURREIKUSPENAK HIRUHILEKOKA (2019ko iraila)

Urte arteko aldakuntza tasak

	2019		2019	2020				2020
	III	IV		I	II	III	IV	
<b>BPG</b>	<b>2,2</b>	<b>2,3</b>	<b>2,2</b>	<b>2,2</b>	<b>2,0</b>	<b>1,8</b>	<b>1,8</b>	<b>2,0</b>
Azken kontsumoa	1,9	2,0	2,0	1,9	1,9	1,8	1,7	1,8
Kontsumo pribatua	1,9	2,0	2,0	2,0	1,9	1,9	1,8	1,9
Kontsumo publikoa	2,0	2,1	2,0	1,9	1,8	1,7	1,7	1,8
Kapital eraketa gordina	2,7	3,0	3,0	2,9	2,7	2,7	2,8	2,7
Barne eskariaren ekarpena	2,2	2,4	2,3	2,3	2,1	2,0	2,1	2,2
Kanpo saldoaren ekarpena	0,0	-0,1	-0,1	-0,1	-0,1	-0,2	-0,3	-0,2
Lehen arloa	2,6	4,2	2,8	-0,3	-2,6	-7,5	-5,0	-3,9
Industria eta energia	1,2	1,3	1,0	1,1	1,3	1,5	1,5	1,4
Eraikuntza	3,0	3,0	3,4	2,8	2,6	2,4	2,4	2,6
Zerbitzuak	2,5	2,6	2,6	2,5	2,2	2,1	2,0	2,2
Balio erantsi gordina	2,2	2,3	2,2	2,2	2,0	1,8	1,8	2,0
Ekoizkinen gaineko zergak	1,9	2,1	2,0	1,7	1,8	1,8	1,6	1,7
BPGaren deflatorea	1,3	1,5	1,3	1,5	1,7	1,7	1,9	1,7
Enplegua	1,4	1,4	1,6	1,3	1,2	1,1	1,1	1,2
Langabezia tasa	9,8	10,0	9,9	10,0	9,8	9,7	9,5	9,8

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza.